



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora

Gehigarri bereziak
Doneztebeko Feriak

BERA → 15
XV. Kafe Antzerki Zikloa
azaroaren 1, 8 eta 16an

AURTITZ → 24
Sanmartinak
azaroaren 7tik 11ra

GOIZUETA → 29
Ekitaldiz betetako hilabetea
Azaro Kulturalarekin

BAZTAN → 32
Baztango Mintzoaren
gida aurkeztu dute



Kirikoketa besta larunbatean, azaroak 2, Arizkunen

Sagardoa egiteko prozesu osoa ikusi, musika eta jan-edanerako aukera izanen da → 34

Pentsiodunak ez daude konforme erreforma berriarekin

ERREPORTAJEA → 4-5



XVIII. Baserritarren Eguna Arantzan azaroaren 1ean

Baserriko produktuen azoka, eskulanak, gazta eta ahari lehia-ketak, ardi eta ahun-tzen erakusketa...

Mayra PEREZ, Esther CREMAES eta Puy ARANA | Sexologoak

«Familiek seme-alaben sexu heziketari lagundu behar dute»

Gurasoei buruhausteak sortzen dizkien gaia da sexualitatea, batez ere, nerabezaroan. Baina sexualitatea jaiotzean sortzen den prozesua da eta bizitza guztian gurekin izanen duguna. Sexu heziketaren garrantziaz eta honetan gurasoek duten paperaz solastu zaizkigu Emakumeen Arreta Zentroetako sexologo eta erizainak.



ELKARRIZKETA → 3

SOKATIRA → 41

Nafarroako txapelketa larunbatean abiatuko da Elizondon

Emakumezkoak, gizonezkoak eta talde mistoak lehiari ariko dira. Eskualdetik Amaiurrek parte hartuko du.



azaroa






3 igandea
ABESBATZA KONTZERTUA:
"Seabrücken Kammerchor"
(Alemania)
20:00 · Kultur Etxean · Sarrera: 6€
Antolatzailea: Berako Abesbatza

15 ortzira
DOKUMENTALA: "Hablan los ojos" (Gorka Espiau)
19:00 · Beralandetan · Ondotik, Berako "Bakea eta elkarbizitza" programaren aurkezpena

19 asteartea
SANTA ZEZILIAKO KONTZERTUA
18:00 · Musika Eskolan

23 larunbata
ABESBATZA KONTZERTUA:
"Alta Donostia"
20:00 · Kultur Etxean
Antolatzailea: Berako Abesbatza

24 igandea
DOKUMENTALA:
"Ardetaren seme-alabak"
(Jone Karres eta Eneko Olasagasti)
18:00 · Kultur Etxean · Sarrera: 3€
Haur Txokoa eskainiko da Beralandetan
Antolatzailea: Bortzirietako Gizarte Mankomunitatea

26 asteartea
PIANO/TEKLATU ENTZUNALDIA
17:30 · Musika Eskolan

29 ortzira
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA:
Ines Bengoa
"Karabi-Karaba"
4-7 urte bitartekoentzat
18:00 · Herri Liburutegian

30 larunbata
BERA KANTARI
19:00 · Herri Liburutegian

XV. BERAKO KAFE ANTZERKI ZIKLOA 2013

1 ortzira
EUSKARAREN ESPEKTAKULUE (Oihan Vega)
22:00 · Kultura

8 ortzira
BALITZEN HIOA (Begiradak Taldea)
22:00 · Lixoián

16 larunbata
LINGUA NABA JORUM (Tartean Teatroa eta Ez dok hiru bikoteatro)
22:00 · Kultur Etxean
Sarrera: 7€

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

Datuetan gainerako informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net



XV. BERAKO KAFE-ANTZERKI ZIKLOA 2013





ORTZIRALA 22:00ETAN
AZAROAK 1
OIHAN VEGA
"EUSKARAREN ESPEKTAKULUE"



ORTZIRALA 22:00ETAN
AZAROAK 8
BEGIRADAK TALDEA
"BALITZEN HIOA"



LARUNBATA 22:00ETAN
AZAROAK 16
TARTEAN TEATROA
"LINGUA NABA JORUM"
* SARRERA: 7€





Nola, noiz, zer erran... Sexu heziketak buruhauste franko ematen dizkie gurasoei. Sexualitatea, ordea, jaiotzean sortzen den prozesu bat da eta bizitza osoan gurekin

dugun zerbait. Neska edo mutiko, emakumezko edo gizonezko, jaiotzetik izaki sexudunak gara eta bizitza guztian horrela izanen gara. Sexu heziketaren inguruan gehiago jakiteko

Mayra Perez, Esther Cremaes eta Puy Aranarekin egon gara, Elizondo/Burlata, Ermita-gaina/Barañain eta Lizarrako Emakumearen Arreta Zentroetako sexologo eta erizainekin.

Mayra PEREZ, Esther CREMAES eta Puy ARANA | Emakumearen Arreta Zentroetako sexologoak

«Sexu heziketan gurasoeekin kontatzen dutela ikustea garrantzitsua da»

G. PIKABEA

Nolakoa izan beharko luke sexu heziketak?

«... eta orduan aitak hazitxoaren jarrizko amaren barrenean». Orain gutxi arte familien sexu heziketak ipuina horrela bukatzen zen. Gaur egun, ordea, -eta lehen ere bai-, badakigu bukaera hori ez dela nahikoa, esaldi horrekin ez dira agortzen sexu heziketaren aurrerak. Sexu heziketaren helburuak honetara bideratuak egon beharko lukete: nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzera, sexu-organo bidezko gaixotasun eta infekzioen transmisioa prebenitzera, sexu abusua eta sexu arteko indarkeria prebenitzera. Ez prebenitu bakarrik, lortu baizik. Sexu heziketa haurrek norbere burua ezagutzeko laguntzean datza. Nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten jakitea, eta gainerakoak nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten ezagutzea, sexu berekoa dena eta ez dena. Haurrek norbere burua onartzen laguntzea ere sexu heziketa da, diren bezalakoak izateaz harro sentitzea. Bakarrak eta bereziak direla jakin, eta gorputz guztiak plazera sentitzeko berdin prestatuak daudelarik, bai harreman afektiboak izateko, bai harreman erotikokoak izateko eta seguruenik, baita ugalketarako ere. Erotikoko espresioekin pozik senti-



Sexualitatea jaiotzen denetik hila arte izakiarengan presente dago.

tzen laguntzea ere bada sexu heziketa, norbere buruarekin gustura egotea. Desio ez diren ondorioak saihesten ikastea da, eta batez ere, norbere balore eta desioekin koherentea izatea.

Zein da sexu heziketan gurasoen egitekoa?

Ez dut uste inork zalan-tzan jarriko duenik sexu heziketak familian ere badaukela tokia. Beharbada noiz hasi behar den zalan-tzak izanen dira, edo zer sartu edo egoera jakin batzuk konpontzeko zalan-tzak, gai batzuen inguruan nola hitz egiten hasi behar den edo zein den hizkuntzarik egokiena. Edozein kasutan, oinarrikoan ados gaude: familiek seme-alaben sexu heziketan lagundu behar

MITOAK ETA IDEIA FALTSUAK

«Oraindik ere badira mito eta sinismen faltsuak. Batzuen ustez, sexu heziketak ez dakit nolako 'senak' pizten ditu, eta ez dakit zer egiteko baimena ematen du... Baina informazio gutti-jasotzen dutenak dira jokaera arrisku-suenetan erortzen direnak, edo zentzu guztietan sexualitateaz gutti-jasotzen dutenak. Gure seme-alabek norbere burua ezagutu eta onartu dezaten eta beraien bizipen erotikoei asebeteak senti daitezela lan egin behar dugu»

dute. Nahi izan edo ez, familietan sexu heziketa egiten da: hitz egin edo isilik gordetzen dutenarekin, ematen dituzten ereduarekin, erabiltzen diren tonuekin, uzten edo gordetzen dutenarekin... Sexu heziketa egin egiten denez, bide egokian egitea nahi dugu. Erantzuteaz gain, gurasoei hitz egiten entzutea ere garrantzitsua da. Errazagoa da gaiaren inguruan eta tonu egokian hitz egiten duenari galdetzea.

Gurasoak seme-alaben sexu heziketaz ardura-tzen dira?

Lehendabiziko galderak sortu arte, normalean gurasoek ez dute beharrezkoa ikusten sexu heziketa planteatzea eta hori batez ere nerabezaroan

gertatzen da, haurdun gelditzeko arriskuaren beldur edo gaixotasun bat hartzeko beldur direnean. Baina une horretan ez dakite nerabeari nola erantzun. Hortaz, garrantzitsua da gurasoei hitz egitea, ezinbertzekoa. Gurasoek sexualitateaz duten kontzeptua zabaldu behar dute, seme-alabekin sexu heziketa egin, eta sexu heziketa ez dela etxean solaslaldi bat ematea ulertu behar dute. Hortik haratago doa, nolakoak diren erakutsiz, euren zalantza, kezka, esperientzia eta baloreekin. **Nola erantzun behar zaie galderei?**

Sexu heziketa ezin da informazioa ematera mugatu. Galdera-erantzunek ez dute ibilbide luze-rik. Baina galderak sortuko direnez, erantzuten diegunaren arabera, galdera berriei atea zabalik edo itxita utziko diegu, eta sexualitatearen ideia bat edo bertzea lantzen hasiko dira. Beraz, galderak erantzun behar dira. Erantzutea erabakitzen badugu, galdetzen segitzea nahi dugulako da, guregan konfidantza izatea eta gai hauetan beraien eredu izan nahi dugulako. Familiak ez du sexologiako profesional baten edo entziklopedia baten lana egin behar. Kontua ez da seme-alabek kontaktatu diegun guztia ikastea. Garrantzitsua da gurasoei kontatzen dutela ikustea da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Pentsio sistema berriak haserrea eragin du pentsiodunen artean, okerrera, goitik behera doazela diote. Argazkian, Arkupeak jubilatu eta pentsionisten elkar-terko kideak Pirinioetara egindako ateraldi batean, maldan beheiti.

GIZARTEA → PENTSIONEN ERREFORMA

Eskualdeko pentsiodunek ez dute begi onez ikusten pentsioen erreforma

Pentsio sistema berria 2014tik aitzinera sartuko da indarrean Hego Euskal Herrian

Espainiar zein frantziar estatuetako gobernuek aldaketak iragarri dituzte pentsioetan eta sindikatuek diote «hondamendi soziala» ekarriko

dutela. TTIPI-TTAPAK eskualdeko pentsiodunen ahotik jakin nahi izan du neurri berrien inguruko euren iritzia zein den.

G. PIKABEA

«Lapurreta, dirua sistema publikotik pribaturara eskuz aldatuko delako», «iruzurra», «pentsioetatik dirua kentzea gero espekulazioaren eta bankuen zorrak estaltzeko erabiltzeko», «enpleguaren aurkako bertze eraso bat», «herritarrei

engainatzea», «pentsio kaskarrak eta lan prekarioak lehenesten dituen filosofiaren ondorioa»... Pentsioen erreformaren inguruan, gisako solasak dabilta herritarren eta sindikatuen ahotan. «Dirua aurrezteko» Espainiako Gobernuak esku artean duen pentsioen

erreformarekin, 2014tik aitzinera pentsioak ez dira KPI Kontsumo Prezio Indizearen arabera berrituko; Gizarte Segurantzak izaten dituen diru-sarrerara eta gastuen arabera izanen dira. Mugak ere jarri ditu estatu espainiarreko gobernuek, guttieneko eta gero-

hieneko igoerak finkatuz: ekonomikoki urterik okerreren ere pentsioak guttienez %0,25 igoko dira, eta aldiz, Gizarte Segurantzak diru-sarrerara haundiak izanda ere, pentsioak ez dira KPI gehi %0,25 baino gehiago igoko. Horrekin batera, 2019tik aitzinera pentsiodunek jaso beharrekoa kalkulatzeko bizi-itxaropena kontuan hartuko da eta hori haunditu ahal, beheiti eginen du urteroko jaso beharrekoak.

Neurri berri hauekin pentsiodunen erosteko ahalmena murriztuko dela diote sindikatuek. Euren zat Espainiako Gobernuak eta finantza boteerak emana duten epaia «oraingo eta gero-ko pentsiodunentzat pobrezia baino ez da», eta horretarako aukeratu duten bidea «pentsioak gero eta tikiagoak» izatea dela uste dute. LABen hitzetan, «pentsio erreformarekin egiten diren murrizketak ez dira diru publikoa aurrezteko, herritarroi dirua

lapurtzeko baizik» eta instituzio publikoak ere kritikatu ditu «ez dutelako deus egiten». ELAK, berriz, datuak eman ditu. Kalkulatu duenez, hurrengo bost urteetan %9ko erosmen ahalmena galduko dute pentsiodunek Hego Euskal Herrian, hau da, hilabetean 90 euro guttiago jasoko dute. 2019tik aitzinera erretiratzen direnei urteko % 0,4 inguru jeitsiko zaiela ere azaldu du ELAK.

Frantziar estatuan ere pentsioak jomugan daude. 2010ean erretreta adina 60 urtetik 62ra gibelatu zuten, eta orain, berriz, pentsioa osorik jasotzeko kotizazio urtea 41,5 urtetik 43ra igo nahi dute. 2020ra arte orain arteko sistema mantenduko lukete, baina ordutik aitzinera, urtero hiru hileko bat gehituko lukete kotizatu beharreko denbora. Honela, 2035ean beharrezkoa izanen litzateke 43 urte kotizatuta izatea pentsio osoa kobratzeko.

PENTSIODUNAK SOLASEAN



Migel Joakin NOBLE | EZKURRA

«Kentzen segituko digute, baina gazteen etorkizuna beldurgarria da»

Duela 20 bat urte jubilatu zen Migel Joakin eta emaztearekin bizi da. Hiru alabak etxetik kanpo ditu, baina asteburuetan semea zenaren alabez arduratzen dira hauen ama lanean denean. Jasotzen duen pentsioarekin hilabete bukaerara ailegatzen direla dio, baina onartu digunez, «gehiago balitz, hobe». 78 urterekin, ez du argi ikusten etorkizuna: «guri ere kentzen segituko digute, baina guk gurea egina dugu. Gazteen etorkizuna beldurgarria da».



Migel MARIEZKURRENA | EZKURRA

«Pixka bat irabaziz eta gutxi gastatuz ailegatzen gara hilabete bukaerara»

72 urte ditu Migelek eta bakarrik bizi da. Urte batzuk badira pentsioa kobratzen duela, eta egunerokoan gastu «izugarrik» ez duenez, hilabete bukaerara ailegatzen da. Hori bai, beretzako adina ateratzen du baratzean edo aziendekin eta horrez gain, «pixka bat irabazi eta gutxi gastatuz». Erreformaren aurka dago: «gure kalterako izanen da. Pentsioa ez dute altxako eta bizitza bai». Gazteen geroa «oso gaizki» ikusten duela ere gaineratu digu.



Martin MARIEZKURRENA | EZKURRA

«Zaila ikusten dut oraingo gazteek pentsioa kobratu ahal izatea»

Hiru alabak etxetik kanpo ditu Martinek eta emaztearekin bizi da. Duela urte batzuk aurrejubilatutuz, eta aurten jubilatu da. Jasotzen duen pentsioarekin ez duela arazorik kontatu digu: «nahiko ongi ibiltzen gara, ez dugu kexatzekorik». Egunerokoan ere ez dute aparteko gasturik. Alabak ere lanean ditu eta oraingoz ongi ikusten ditu. Baina gazteek pentsioa kobratuko ote duten galdetuta, «hori nahiko zaila ikusten dut», erantzun digu.



Pedro TELLETXEA | LEITZA

«Jubilatuta ongi egonen ginela uste nuen, baina soka estutzen ari dira»

Emazte eta alabarekin bizi da Pedro. Emazteak eta biek duten pentsioarekin moldatzen direla dio. Baina kritiko da pentsioak «izoztuak» daudelako eta gauzak «gero eta garestiagoak» direlako. «Eskerrak ez dugun zorrik, bestela, hilabetearen azkenean estu ibiliko ginatke». Jubilatuta «ongi egonen ginela» uste omen zuen, «baina soka estutzen ari dira eta estutu eta estutu azkenean hautsi egiten da». Argi du erreforma «ez dela positiboa».



Angel TELLETXEA | ETXALAR

«Duela 15 urte irabazten nuen soldata jasotzen dut gaur egun»

Emazte eta bi semeekin bizi da Angel. Zortzi urte izanen ditu pentsioa kobratzen eta erran digunez, hilabete hondarrera «sobrante-rik gabe» ailegatzen dira. «Duela 15 urte irabazten nuen soldata jasotzen dut orain. Atera kontuak 15 urteotan zenbat igo den bizitza». Pentsioen erreforma ez du begi onez ikusten: «gehiago estutzen bagaituzte, eta bizitza beti gora doala ikusita, ez zait ongi iruditzen. Gazteek ez dakit zein etorkizun izanen duten».



Paula HUARTE | ARIZKUN

«Beharrik bi aldetik kobratzen dudana, bertzela juxtu ibiliko nintzateke»

Duela hiru urtetik da pentsioduna Paula eta Ameriketara ere lanean ibili zenez, bi tokietatik kobratzen du: «espainiar estatutik jasotzen dudana bakarrak banantz, arras juxtu ibiliko nintzateke. Ez dut kexatzekorik, baina beharrik bi aldetatik heldu zaidan». Erreforma «arras gaizki» iruditzen zaio: «pila bat kaltetuko gaitu. Pentsioak beheiti doaz eta bizitza goiti». Hortaz, «hitz emandakoa errespetatu eta pentsioak ordaintzeko» eskatu du.



Karmelo ETXARTE | LESAKA

«Dudarik gabe, erreforma pentsiodunen kalterako izanen da»

56 urte zituela aurrejubilatutuz Karmelo, duela 20 urte. Urteekin pentsioak «ez direla igotzen» dio, eta aldiz, «bizitza garestitzen ari dela». Seme-alabak etxetik kanpo eta lanean ditu, eta erran digunez, «andrea eta biak bakarrik bizi gara eta hilabete hondarrera ailegatzeko moldatzen gara». Gaineratu digunez, «adin hone-tan ez da gastu haundirik izaten». Hala ere, ez da pentsioen erreformaren aldekoa: «dudarik gabe, gure kalterako izanen da».



Felisa SALABERRIA | GOIZUETA

«Pentsio bakarra banu, zer eginen nukeen pentsatzen gelditzen naiz»

65 urterekin jubilatu zen Felisa, eta geroztik pentsioa kobratzen du, baita alargunaren pentsioa ere 1997tik. Hilabete hondarrera ailegatzeko ez duela arazorik dio: «Luxurik gabe, baina nire kapritxoak ere egiten ditut, eta ez dut inoren laguntzarik behar». Hori bai, aitortu digunez, «pentsio bakarra baldin banu, horrekin zer eginen nukeen pentsatzen gelditzen naiz». Baina ez da hori bere kasua eta hala, biek «oso ongi» moldatzen dela kontatu digu.



Nire txanda
Ruben GARATE

Urria

Aldizkarian idazteko erran zidatenean, zeri buruz idatzi behar ote nuen galdezka hasi nintzen nire buruari. Galdetu bai, baina une horretan erantzunik ez... Baten batek erran zidan, pilpilean dagoen gaia izanik mutildantzen inguruan idazteko, bertze batek Ana Mari Marinen erakusketaren inaugurazioaz hitz egiteko... Baina gaiak zauriren bat sor zezaketela irudi zitzaidanez, bertze baten bila segi nuen. Azkenean egutegiari luzatu nion begirada. Hala, urria hartuko dut hizpide eta hilabete zoragarria dela erranen dizuet. Mendian zehar ibilaldiak egiteko garai aproposa da, naturak aldatu berri duen soinekoa ikustekoa. Egun sargoriez gozatuko dute batzuek eta gustuko ez dituztenek, berogailua pizteko beharrik ez dute izanen behintzat. Hau ez da txantxetako kontua egoera ekonomikoak hartu duen kolore beltza ikusita. Urria ferien hilabetea ere bada. Galtzerdi, aterki eta turroien feriena eta baita saldu litezkeen bertze milaka gauzena ere. Ehiztarien sasoi ere bada, usoen garaia. Altxor preziatuaren bila mendira joan-etorri ugari egiteko momentua. Urriaz, feriez eta ehizaz gozatu izana eta oraindik ere gozatzea espero dut.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Desegin da Barricada

Nerabe garaian, etxean Richard Clayderman-en pianoa aditzen genuenean *Noche de Rock&roll* grabatu zidan lagun batek kasette zaharrea. Berako Eztegaran aditu (?) genituen, *tximaluze* eta *galtzaextu* artean erdi izituak. *Barrio Conflictivo* eta bertze etorri ziren ondolik, biniloan, CDan... Ipod garaian gutti aditu ditut baina penaz jakin dut barrikadak desagertu direnean Barricada ere desegin dela.

Nabarmentzekoak



Xabier GOROSTERRAZU
Urroztarra beatifikatua

Urriaren 13an egin zen ekitaldian, eliza katolikoak estatuko XX. mendeko 522 *martiri* beatifikatu zituen, tartean Urrozko semea zen Xabier Gorosterrazu Jaunarena.



Maite LAKAR
Baztango Mintzoa

Baztango Mintzoa ahoz nahiz idatziz ongi erabiltzeko gida argitaratu du Balleko Udalak. Maite Lakarrek egin du eta paperean ez ezik euskarri digitalean ere zabalduko da.



Patxi OLAZAR
Promozioan txapeldun

Doneztebeko atzelariak bere esperientzia erakutsi zuen urriaren 19an erremonteko Promozio txapelketako finalean eta Otaegirekin batera, 31-40 irabazi zieten Etxabe II eta Labakari.

Atzera begira → 2003.10.31 / TTIPI-TTAPA 361 zk.



Bularreko minbizia duten elkarteko bulegoa Elizondon

Bularreko minbizia duten Nafarroako emakumeak biltzen dituen Saray elkarteak, Baztan-Bidasoaldeko emakumei zerbitzua eskaintzeko bulegoa ireki zuen Elizondon duela hamar urte. Amaia Arotzarena elkarteko psikologoak aipatu zigunez, «gogorra eta kezkarria izaten segitzen du, baina bularreko minbizia izan dutenekin solasterakoan egoera desdramatizatzen da». Estetika aldetik emakumeek izaten ahal duten kezkarri dagokionez, «estetika eta irudiarren gizartean bizi gara, gorputz perfektua gurtzen da, baina emakumeak bi bular baino gehiago dela konturatu behar du» erran zigun Arotzarenak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Usoak, mihura eta haizea

Mikel TABERNA

Prentsan irakurri dugu usoak ohartu direla zenbatenaz itsaso alderagotik pasatu gure mendi koxkor hauek, tiro guttiago sumatzen dutela airean haien inguruan. Azken urteotan, aunitzek euren ibilbidea kanbiatu dute. Lehenago ez bezala, orain erdiek baino gehiagok Azkainetik Hendaia-Hondarrira bitarteko zeru puska bereizten dute, Nafarroako mendi kasko eta lepoetan esperoan diren ehiztariei burla egiteko. Aurten berean, uso konitari aritzen diren tokietan, Urruñakoa ageri da denetan nagusi. Ikusi ditugu hegaka eta adio egin digute, irria moko xokoan, beheitiago zer egokituko zaien jakin gabe.

Buruilaren hondar horretan, bertze despedida bat ere izan dugu: Fermin Mihura bertsolari azkaindarraren joan egin zaigu. Gordeak gelditu zaizkit haren begi bixiak eta gorputz mehar urduria, kantarako beti prest. Beharbada hegaztiekin batera izanen dugu goialde horietan, lertsun tropa baten erdian igual, haizearen balakua aurpegian sentitzen duela. Nork daki nora joaten ote garen azkeneko muga pasatu eta gero? Bizirik segitzen dugunon baitan maitatu ditugun oroitzea hor nonbait txertatzen zaigu, mihura arbolan bezala. Adio, Fermin, aldeko haizea izan eta bidaia ona egin!

Haize hegoak aurten ere ez du huts egin berezkoa duen sasoian. Kontu ezaguna da jende klase bat burutik nahasten dela halako egunetan. Horregatik ote den Beran ikusi dutena: gizon bat, laneko buzoa jauntzirik, pareta zuriz pintatzen legezko baimena zuen bertze iduri bat tapatzeko. Legea denean, lege delako, eta legez kontra denean, nik nahi dudalakoz? Jakin beharko genuke denek elkarrekin bizi behar dugula eta horretarako elkar errespetatu bertze erremediorik ez dugula: ideiak, banderak, hizkuntzak, sexuak, arrazak, joerak, memoria... Jakin beharko luke gizon horrek bereziki, zinegotzia baita Herriko Etxean.

Paretak pintatzen ibili beharrik izan gabe, guk sekulako suertea izan dugu azken urteotan paperezko plaza honekin. Ttipi ttapa bidean, gure aldizkariak 600 ale bete ditu. Denek egin beharko diogu haize, bertze horrenbertze betetzeko. Eskerrik asko eta aunitz urtez!

«Kontu ezaguna da jende klase bat burutik nahasten dela halako egunetan. Horregatik ote den Beran ikusi dutena: gizon bat, laneko buzoa jauntzirik, pareta zuriz pintatzen legezko baimena zuen bertze iduri bat tapatzeko. Legea denean, lege delako, eta legez kontra denean, nik nahi dudalakoz?»

Udazken kantu afaria

AZAROAK 8 - 21:00etan
IBARDIN

MENDIKO SAGAROTEGIAN

AFALONDOAN KANTUZ:

- BANKAKO MENDIZALEAK
- MAHAINGURUKO TALDEA (Santxotena akordeoilariarekin)
- GILLERMO SEGUROLA TXISTE KONTALARIA

menua

Gure lurreko janariekin

- Txorizoa (Mendiko Jatetxea)
- Urdaiazpikoa (Zabaleta · Bera)
- Bortzirietako Onddoak
- Arantzako magreta (Martiko)
- Garmendiko bordako gasna (Bera)
- Bortzirietako gaztainak
- Berako sagardoa
- Inurrieta ardoa

AUTOBUSA: Lesaka...
...Bera...
...Ibardin

TXARTELAK SALGAI: Mendiko Sagardotegian
670 365 011 telefonoan
Lesakako Legarran (estankoa)

Antolatzaileak: Anjel Mariezkurrena
Mendiko Sagardotegia

Irakurleak mintzo

Eraikuntza eta Kirol Gehigarriak prestatzen

Arraiozko Guraso Elkarte

Udazken garaian ohi-koak diren FERIA gehigarriez gain, hurrengo bi aldizkarietan argitaratzeko Eraikuntza eta Kirol Gehigarriak prestatzen ariga burubelarri. Bietan publikitatea kontratatu nahi baduzue lehenbailen deitu behar duzue Ttipi-ttapako 948 635458 telefono zenbakira edo mezua bidali

publi@ttipi.net helbide elektronikora. Propagandaz gain, Kirol gehigarria osatzen ere laguntzen ahal duzue zuen taldearen argazkiak edo taldeari buruzko informazioa igorri. Denen artean informazio zabalagoa eta sakonagoa eskainiko dugu. Milesker!



Bota bertsoa

Xabier MAIA (Baztango Bertso eskola) • Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Parot doktrina atzera bota

Parot doktrina atzera bota eta zenbat gorabehera kolpea joan da bizkar batetik behingoan bertze aldera baina ez pentsa nahikoa denik ez begiratu atzera aldatu behar da justiziaren irakurketaren era balantza bat du eskutan baina orekarik ez, bai zera! Galindo jada aske da domin ta guzi gainera zer justizia dagon gaur egun bota nahi nuke galdera batzutan itsu gelditzen dena gobernuen arabera.

Helegita jarri ta gero denbora pasa ahala Estrasburgetik argitu dute zerbait ez zela normala sumarioak akats ugari eta larriak zeuzkala ta kaleratu behar zirela preso batzuk berehala zazpi urtera nola egin deus pasa ez balitz bezala non da konstituzionala? Non estatuko fiskala? zer pasatzen da gobernu lege bat denean ilegalata? begiak itxi eta norberak pixkat hausnartu dezala.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatea

Jakinarazpena

2013ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2013ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2013ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2013ko urriaren 1ean

Presidentea
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Prentsatik bildutakoak



«[Artearen helburua] egia sentiaraztea da, horrekin dena errana dago. Bizitzan oinarrizkoena sentimenduak dira. Eta bizitzan musikaz, pinturaz, poeta handien irakurketaz, eta izan den jende on eta ederraz ahazten ari gara... Orain jendeak leku batera ailegatu eta uste du dena badakie-la. Nik deus ez dakit. Zintzoak izan eta ikas-teko prest egon behar dugu.»

Ana Mari MARIN
Elizondoko margolaria
D. NOTICIAS 2013.10.18



«Nik beti diot kirolean inor ez dela ordezkaz-zina. Beti dator jendea gibeletik. Gogoratzen dut Imanol Mujika erretiratu zenean bazuridiela atzelari gehiago ez zela izanen, baina erremontek segitu zuen. Nere gibeletik San Miguel dator, Ezkurraren gibeletik Urriza etorriko da. Michael Jordan erretiratu zen eta ez zen deus pasatu, kontuak atera!».

Iñaki LIZASO
Erremontelari ohia
D.NAVARRA 2013.10.15

11 galdera labur

Nor dugu Oihana Mindegia?
Aurtizko neska arrunt bat.

Zein afizio dituzu?
Mendia, euskal kantugintza eta bertsolaritza bertzeak bertze.

Inguruan besta non, bi Oihanak han?

Aspaldian inork ikusi al gaitu?
Berexiki jotzea gustuko duzun toki bat?

Leku guztiak desberdinak dira eta denek dute berezitasunen bat, baina bat aukeratzekotan Igantziako inauteriak.

Nori joko zenioke gustura panderoa?

Panderoarekin joko nieke Barcina eta konpainiari, ea behingoz pakean uzten gaituzten.

Zerk egiten ditu berezi Aurtizko bestak?

Niretzat nire herrikoak izateak eta baita inguruko azkenak izateak ere.

Zein duzu bestetako ekitaldirik gustukoena?

Ortziralean egiten den herri bazkaria eta gerokoak...

Eguna ala gaua nahiago?

Bakoitza bere momentuan, baina eguna geroz eta nahiago dut.

Zein da bestazale ona izateko sekretua?

Sekretuak ez ditut kontatzen!

Jai egun baterako planik hobere-rena?

Bizikleta eta motxila hartu eta egun guztiko itzuli bat egitea.

Amets bat?

Ez naiz sobera ameslaria baina zerbait errateagatik, Alaitz eta Mainerren kontzerturen bat aditza. Ea betetzen den!



Oihana MINDEGIA → Aurtizko gaztea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

J.RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosai taldea

zalain
JATEETEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

udana
salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga Ind. - Banarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Egin zaituz
ttipi-ttaparen
harpidedun
ttipi-ttapa
(0034) 948 63 54 58



EMAKUMEA - GIZONA

AINHUA
EL PAINDOIA

Pamplona, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

ALXUNEA ERRETEGIA

IREKITA
ostiral eguerdik igande eguerdira,
besta egunetan eta besta berperotan

Kantxaja, 27 - ITUREN
T. 948 450 410

BENI
arraindegia

Ortzinal arratsaldean eta besta
beperatan **IREKITA**

K. Nafarroa 2 - DONEZTEBE
T. 948 450 687

Sampi Aragón, S.A.

MARKA GUZIEK KONPONKETA
Mekanika | Elektrifikazioa | Txapa | Pintura

948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@telefonica.net

ONG PASA FERIAK!

BELARRA JATETXEA

Arria - DONEZTEBE - 948 450 306 - www.restaurantebelarra.com

GANCI PASTA FERIAK!

Angie
ENGLISH ACADEMY

University of Cambridge azterketara
aurkezteko prestakuntza

Itzulpen lanak egiten dira
Eskola laguntza

20 URTE BAINO GEHIAGO MALERREKAN
Ongi pasa feriak!

Elizagibela, 7 behe - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - angieacademy@gmail.com

DONEZTEBEKO FERIAK

Goizean poltsikoak hustuz, arratsaldean herri kirolekin gozatzuz

San Martin ondoko ortziralean, urteroko soineko bera jantziko dute Doneztebeko karriek. Aziendak Merkatu Plaza inguruan, salmenta postuak, taloak, nekazaritzako tresneriak... udazkeneko ferietako giroak hartuko du herria azaroaren 15ean. Ohiturari eutsiz, goizean goizetik izanen da zer ikusi eta erosi. Eguerdira arte aziendak buru hoberenak ikusi eta tratuan aritzeko aukera izanen du hortara doanak.

Atsoferia berriz, goiz eta arratsaldean egiten da eta bertze saltzaileen eskaintzekin batera, herriko merkatariek ere beraien produktuak aterako dituzte karriketara. FERIA eguneko bertze ezinbertzeko osagaia bihurtu da herri kirol saioa. Urteak daramatzate ferietako arratsaldean herri kirol saioa antolatzen. Batzuetan jaialdi arruntak izaten da baina bertze batzuetan txapelketaren bat ere jokoan izaten da.



Argazkia: Aitor AROTZENA

Mendaur Motor **OPEL SUZUKI**

ongi pasa feriak!!!

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura

Leitzako bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



Argazkia: Aitor AROTZENA

Aurtengoa, ez da izanen nolanhiko hitzordua Nafarroako Maila Nagusiko aizkora finala eta Nafarroako II. Mailako Arpana txapelketa jokatu direlako 17:30etik aitzinera pilotalekuan.

Nafarroako maila nagusiko aizkora finala

Bortz aizkolarari aurrez aurre arituko dira txapela lortu nahian. Tartean eskualdeko bi ordezkari izanen dira, **Jon Reondo** eta **Ruben Saralegi** leitzarrak. Hauekin batera **Floren Nazabal** (Etxarri Aranatz), **Juan Jose Lopez** (Lezaun), eta **Antonio Senosiainek** (Olague) lortu zuten finale-rako txartela urriaren 6an Etxarri Aranazen jokatu zen kanporaketan. Finala 17:30ean hasiko da, eta aizkolarari bakoitzak hamar enbor moztu beharko ditu: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.

Aizkolariez gain, arpanlariek ere nor baino nor aritu beharko dute. Nafarroako II. Mailako arpana txapelketa egonen da jokoan eta Nafarroako Herri Kirol federazioak jakitera eman digunez, lau bikotek hartuko dute parte, nahiz eta oraindik lehendabiziko hirurak bakarrik dauden zehaztuta: **Alberto Oteiza** (Larrageta)-**Adrian Berrueto** (Ibero), **Xabier Urrutia** (Arraioz)-**Daniel Saldias** (Arraioz), **Peio Etxabide** (Lesaka)- **Joseba Irigoien** (Lesaka) eta **Andoni Irigoien** (Aniz) eta **Guillermo Etxenike** (Iruirita). Bikote bakoitzak egin beharreko lana honakoa izanen da: etzanda jarritako 45 ontzako enborrari 10 epai eta zutik jarritako 45 ontzako enborrari 4 epai. Bikote txapelkunak mailaz igoko dira.



Arozena
ostatu · jatetxea

ongi pasa feriak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 - Doneztebe

CTV ALBAITARITZA ZENTRU TEKNIKOA

ongi PASA FERIAK

Rosa Seminario, 15 - DONEZTEBE - 948 450 591 - 659 884 374

goldea tallerra, s.l.l.

ongi pasa feriak!

Tel./Fax: 948 450 010
e-mail: goldeatallerra@gmail.com
Pol. Industrial Auzan, 1
31244 Doneztebe (Nafarroa)

GURE
Oñateko BERRI
Oñateko BERRI

ongi pasa feriak!

Parrokia, 19 • DONEZTEBE • T. 948 45 08 19

MARIA MILAGROS ELGEZUA
ABOHATUA

LANTEGIAK PARTIHULARIAK

Jaima Urrutia 20 - 1
31700 ELIZONDO
Tel eta Fax: 948 452 570
Mugikorra: 682 635 839
629 920 143
mielge@ihmail.com

Mailposta Buzoneos

Bisitatu Inprimitu Banatu

Bisita txartelak, egulegiak, kartelak, fakturak...
inprimitzen ditugu.

Kartelak, egulegiak, foiletoak, aldizkariak...
banatzen ditugu.

Tel. 686 747 713 • NARBARTE
www.mailpostabuzoneos.com

Mendiburu
aziendak · tratantea

ongi pasa feriak!

608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

ZER GALAN
aholkularitza
www.zergalan.es
info@zergalan.es

ongi pasa feriak!

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erakitzea
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrari zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioren bideragarritasunen eramatea

Bartanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

KONTXA Gasolindegia



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasoleoa, B Gasoleoa, SP 95, Adblue)
- TABAKO SALMENTA
- TELEFONO MUGIKORREN BIRKARGA
- LABETIKAN MOMENTUAN ATERIKO PIZZAK
- DUTXA ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

SUPERMERKATUKO PREZIOAK DITUEN DENDA
ESKATU DOHAINIK GURE DESKONTU TXARTELA, A GASOLEO ETA SP 95 HARTZEKO PREZION EZIN HOBEANI

GASOILA ETXERA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA
- ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
- PREZIO LEHIAKORRA

TASKA Simón TABERNA - KAFETEGIA

- * MENUAK
- * PLATER KONBINATUAK
- * OGI TARTEKOAK
- * PINTXOAK
- ERAMATEKO JANARIAK-



ESKEINTZEN DUGU

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



EDERKI



PEUGEOT AGENTE OFIZIALA PEUGEOT

Leitza errep. · DONEZTEBE · 948 450 525

Grua Zerbitzua 24 ordutan

Mekanika | Elektrizitatea | Txapa
Pintura | Hidraulikan espezializatuak

Ongi pasa feriak!






DONEZTEBARRAK ELKARTEA

Denon artean herria bizirik mantentzeko deia

Garai beltzei irudimen eta ilusioarekin egiten diete aurre Doneztebarrak elkarteko kideek. Horren adibide dira urte osoan zehar antolatutako ekimenak: *Maite zaitut* erran diete erosleei, *San Pedroren* bila jarri dituzte bezeroak, argazki lehiaketa berezia antolatu dute, zozketak, eskaintzak... «Kanpoko jendea erakarri eta herritarrek bertan gelditzea» helburu duten egitasmoak guztiak. Leire Amorosek Doneztebarrak elkarteko idazkariak azaldu digunez, «bertako komertzio, zerbitzu eta ostalaritzaren garapena indartu eta herriaren parte aktiboa izateko» helburuarekin ari dira lanean. 2006an hasi zuten bidea, egun 51 bazkide dira eta «urtetik urtera kopurua handituz doala ikusteak, aurrera segitzeko indarra» ematen diete.



Leire Amoros, Doneztebarrak elkarteko idazkaria

Bidea ordea ez da bakarrik egiten eta «elkarlana» funtsezkoa dela diote. Elkarlan horren giltzarria «bezeroak» direla argi du «eskertu egin behar dugu gudan jartzen duten konfi-

dantza eta oroitarazi denon artean mantentzen dugula gure herria bizirik». Merkatarizarik ez baita, bezerorik gabe. Ahalik eta zerbitzu hobereana eskaintzea da elkartekideen asmoa eta horretarako etengabe aritzen dira lanean «ikastaro desberdinetan parte hartuz, herriko beste erakunde eta elkarteekin kolaboratuz, herrian antolatutako ekintzetan lagunduz...». Horretaz gain, eskualdeko bertze merkataritza eta zerbitzu elkarteekin ere elkarlan handia egiten dute «zonalde bezala lan eginda indar gehiago dau-

kagu. Dagoeneko elkarrekin proiektu interesgarriak aurreikusita dauzkagu». Datozen hilabeteetarako ere ekimen aunitz dituzte esku artean. Doneztebako feria egunean, karrikara aterako dituzte beren produktuak eta Erreka-Mendaur APYMAk antolatutako zinearekin ere kolaboratuko dute. Eta udazkena amaitzean eguberrietako kanpainari helduko diote, atsedetik hartu gabe «Donezteberen alde lan egiten segituko dute».



ARGAZKIA: DONEZTEBARRAK

Irailean antolatu zuten feria berezian egin zuten bezalaxe, azaroaren 15ean, Feria egunean, produktuak karrikara aterako dituzte.

FERIETAN ZURE GOSARI ETA BAZKARIAK ARIZTIGAIN kanping-jatetxean!!

OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK
Lanarrarte, behala, familia bazkariak...

SUNBILLA | 948 450 546 | www.campingariztigain.com

Clinica Dental IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

- Rx. Panoramikoa ·
- Periodontzia ·
- Odontopediatria ·
- Kirurgia ·
- Endodontzia ·
- PADI ·
- (Haurren hortzak zaintzeko programa)
- Protesiak ·
- Hartz-zuritzea ·

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7esk.
948 610 713

EZ GAITU EDOZEINEK SALTZEN

MOTOSERRA 199€
LIFE MAXIMA 249€

BANATZAILEA:
JOSÉ LUIS SAN MIGUEL
Merkatu karrika, 11
DONEZTEBE
T./F.: 948 450 711

GIZARTEA

NATURA → UDAZKEN HONETAN

37.294 izokin-kume askatuko dituzte Bidasoa arroan

1990. urtetik ibaian goiti egiten duen izokin kopurua handitu eta egonkortu da

TTIPI-TTAPA

3.790 izokin-kume askatu zituzten urriaren 21ean Bidasoan, Oiegin, bere kabuz iraun dezakeen espeziearen ibai horretako populazio naturala berreskuratzeko. Ekitaldian Yolanda Barcina Nafarroako presidentek parte hartu zuen, eta harekin batera izan zen José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria. Aurreikusi denez, datozen egunetan 37.294 izokin-kume pikart askatuko dituzte guztira Bidasoa ibaiaren hainbat tartertan eta erreka adar batzuetan (Beartzun, Artesiaga, Aiansoro, Ezkurra eta Ezpelura).

Espezia berreskuratzeko planaren ekin-

tzetako bat populazio basatiak indartzea da, izokinak naturalki helden ez diren edo modu adierazgarrian iristen ez diren arroaren guzietan. Birpopulazio Mugairiko arrain-haztegi-aleen bidez egiten da, bi sasotan eta bi motatako kumeekin: arrainkumeak udaberri amaieran eta uda hasieran ibairatzen dira, banazbertze 7,4 cm eta 5 gramo dituzte, eta marka dute eginda gantz-hegalean. Aurten 83.285 arrainkume bota dira guztira Bidasoa, Ezkurra eta Ezpelura ibaietan; pikartak udazkenean errekartzatzen dira: 10,8 cm-ko neurria eta 18 gramoko pisua dute banazbertze. Marka gisa, gantz-hegalean ablazioa dute eginda eta sudurrean mikromarka bat. Urriaren 21ean askatu dituzten izokin-kumeak azken mota horretakoak izan dira, eta udazken honetan guztira 37.294 pikart askatuko direla aurreikusi da.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Barcina presidentek eta Nafarroako Gobernuako ordezkariak Berako estazioa bisitatu zuten.

POPULAZIOAREN KONTROLA BERA KO HARRAPATZE-ESTAZIOAN

Ondoren, Berako harrapatze-estaziora joan ziren agintariak, han burutzen baitira izokin populazioa kontrolatzeko lanak (zenbaketa eta aleen markaketa).

Izokina berreskuratzeko estrategiaren berriz ardatzetako bat populazioa kontrolatzea da. Kontrola ibaian egiten duten bizitzako ziklo osoan burutzen da: ibaian goiti egiten duten ale ugaltzaileak eta arrainen arrabalekuak lokalizatuta ugalketa naturala kontrolatzen da, arrabarako habiak zenbatzen dira, populazioen jarraipena egiten da eta izokin gazteen mi-

grazioa kontrolatzen da.

Espezia kontrolatzeko ekintza batzuk Berako harrapatze-estazioan egiten dira. Fundizioen presako oztopo artifiziala aprobetxatzen duten instalazio txikiak dira, eta Bidasoan goiti egiten duten izokin guztiak harrapatzen dira. Horretarako, arraintzako eskalaren zati den oraska batean butroi bat (sarez egindako konoa) duen kaiola bat dago jarrita. Bertara modu naturalean igo daitezke arrainak, baina ezin dute atera.

Langileek urteko saturoaren eta baldintza hidrogikoen arabera aztertzen dute tranpa, eta harrapatutako aleei buruzko datuak jasozen

dituzte. Horretarako, kaiola jaso eta harrapatutako arrainak putzu batean anestesiatu ondoren datuak jasotzen dira: espeziea, sexua, luzera, altuera, jatorria eta ezkatena lagina. Ondoren, putzu txiki batean uzten dituzte indarberitu daitezkeen presan goiti askatu aitzinetik.

Izokina berreskuratzeko planari esker, 1990. urtetik Bidasoan goiti egiten duten ale kopurua handitzea lortu da. Gainera, kopurua egonkortu da urteko banazbertzekoa 300 ingurura hurbilduz. Azken hiru urteetan kopuru hori nabarmen gaitzitu da (462 izokin 2010ean, 461 izokin 2011n eta 387 izokin 2012an).

GERTAERAK → **HORMA-IRUDIA ESTALI DU PINTURAZ**

Udalak UPNko zinegotzia salatu du

TTIPI-TTAPA

Juan Losa UPNko zinegotziaren aurkako salaketa paratu du Udalak Foru Poliziaren aitzinean, herriko eraikin batean baimendutako horma-irudia margo xuriz estali duelako. Udaletik gogoratu dutenez, «horma-irudi hori dela urte batzuk margotu zen Udalaren baimenarekin eta bertan ez ziren aipatzen ez presoak ez ETA erakundea ere. Euskal Herriko maparekin batera *Euskal Herria aitortu, errespetatu* zen UPNko zinegotziak ezabatu duen horma-irudiaren leloa». Gaineratu dutenez, «lehendik ere, zinegotziak errana zuen behin baino gehiagotan halakorik egiteko asmoa zuela baina alkateak aldioro adierazi zion ez zuela ezabatzeko baimeunik, ez eskumenik». Udalak «hagitz larrizat» jo du halakorik egitea, «intolerantea izateaz gain, zinegotzia izanik, Udalaren erabaki baten kontra eragiten duelako». Hala, salaketa publikoa egitea eta bere udal ordezkariaren aitzinean erantzukizunez jokatzeko eskatu dio Udalak UPNri.

Berako UPNk alka-

tearen eta bere taldearen pasibitatea salatu izan du prentsan, eta horren inguruan zera adierazi dute Udaletik: «agintaldi honetan izan diren pintadak aldioro garbitu dira eta orain ere antolatua zegoen kanpo santukoaren garbiketa». Udalean, agintaldi osoan, «pasibitatea agertu duen bakarria Losa zinegotzia bera» izan dela dio Udalak, «are gehiago azkeneko hila-beteetan, dagozkion batzordeetara ez delako ia inoiz agertzen, ez udalbatzarretara ere». Berak bilatzen duen bakarra «nabarmentzea» dela uste du Udalak, eta «bere asmoa ez da herriaren alde egitea, bere kezka nagusia prentsan agertzea da, kosta ahala kosta, horretarako ikur eta sinboloen kontrako gerra pizten saiatuz, etengabe».

Bilduk ere zinegotziaren «jarrera onartezina» salatu du prentsohar bidez eta UPNk Beran duen lan egiteko modua «gezurra, mehatxua eta errespetu falta» direla uste du.

XV. Kafe-Antzerki Zikloa

Berako Euskara Batzor-



UTZITAKO ARGAZKIA

Alemaniko Abesbatzak emanaldia eskainiko du igandean

Tolosako Nazioarteko Lehiaketan parte hartzera datorren Alemaniako Saarbrücken Kammerchor ganbera abesbatzak emanaldia eskainiko du azaroaren 3an, igande arratsaldeko 8etatik aitzinera Kultur Etxean. Abesbatza 1990an sortu zuen gaur egun ere zuzendari den George Grün-ek eta 20 emakume eta 20 gizonen osatzen dute. Sarrera 6 euro kostako da eta Berako Abesbatzako edozein kideri eskatzen ahal zaio. Bertze aldetik, urriaren 26an Donostian kantatu zuen Berako Abesbatzak eta azaroaren 17an Igantzin abestuko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Rugbyan aulki gurgildunean aritzen direnekin solasean

Toki Ona institutuko eta Ricardo Baroja eskolako ikasleek, Aingirak Euskadi taldeko kideen azalpenak eta erakustaldia ikusteko parada izan zuten urriaren 18an. Iparraldeko taldea da hau eta gurgildun aulkietan rugby jokatzeko dute. Ikasleei gurgildun aulkietan rugbya praktikatzeko aukera ere eskaini zitzaion. Hagitz aktibitate aberasgarria izan zen.

deak, Kultur Batzordearen eta Bortziritako Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako Kafe-Antzerki Zikloaren hamabosgarren edizioa azaroaren 1ean, ortziral arratseko 10:00etan abiatuko da lkuilu osta-

tuan, Oihan Vegaren *Euskararen espektakulue* ikuskizunarekin.

Azaroaren 8an, ortziral arratseko 10:00etan Lixoia ostatuan *Balitzen hioa* antzezlanaren aurkeztuko du Begiradak taldeak eta azaroa-

ren 16an, larunbat arratseko 10:00etan, Tartean Teatroa taldeak *Lingua Nabajorum* taularatuko du Kultur Etxean. Bi lehenbizikoak doan dira, baina azken honetan 7 euroko sarrera ordaindu beharko da.

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

Xirgil
Albate 1 - BERA
Tfona: 948 631 488

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza - gasa
kalafakzioa
Tfona: 629-449602-BERA

ANANDORRA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidaxoa, 76 - otoa 21-22
31780 BERA

LESAKA

KULTURA → ERAKUSKETA ERE EGINEN DA AZAROAN

'Lesakako gai ezberdinak' liburua argitaratu du Rafael Eneverreagak

Historia eta arkitekturaren zati bat ezagutzera emateko asmoz

Aitor AROTZENA

Lesakako gai ezberdinak liburua argitaratu du Rafael Eneverreagak, herriko historia eta arkitekturaren zati bat ezagutzera emateko asmoarekin. Eneverreagak bisita gidatuak eskaintzen ditu herrian barna eta horietako aunitzetan animatu dute herriari buruzko zerbait ar-

gitaratzera. San Juan bezperan Euskara Batzordeak antolatutako bisitan ere aunitz izan ziren horretara animatu zutenak eta azkenik liburuxka atera du.

Hasieran fotokopia gutti batzuk egin zituen eta Koxkilan utzi, nahi zuenak ikusi, irakurri eta kopia eskatzeko. Geroztik ehun kopia baino gehiago egin behar izan ditu, «herriko historiak sortzen duen ikusminaren erakusgarri». Bertzeak bertze, herriko kontuei buruzko datu laburrak ematen ditu, *Ba al zenekien?* atalean: (Ba



DATUA

132
ORRIALDE
ditu liburua

al zenekien herriko zubirik zaharrena konbentutuan dagoen Espeako zubia dela, 1720koa?). Ondotik, Ibilbidea Lesakan barna egiten du, 1423ko ordenantzak, Musika Bandaren araudia (1857), Pilota jokua araudia (1850) eta euskarazko lehen agirien berri ere ematen du (1829koak dira, Sara eta Lesakako alkateen arteko eskutitzak). Bukatzeko, bando berezi batzuen eta San Juanetan ospatzen zen mairu eta kristauen bestaren berri ere ematen du.

Liburuaz gain, Lesakako kontuak Facebookean ere ematen ditu ezagutzera Eneverreagak, hiruzpalau kontu irekiak baititu sare sozial horretan eta beti badelako non aritu. «Lehengoa erranzidan batek Agortxeberri eta Tomasenekoborda tarte horri Kardax deitzen zitzaioala garai batean, kardaberengatik behar bada. Aritu naiz papeletan begira eta ez dut deus topatu, baina berri ere saiatuko naiz» aipatu digu Eneverreagak, bere jakinminaren erakusgarri.

Euskaraz bizi nahi dut krosa larunbatean

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, azaroaren 2an egingen da Bortzirietako Euskaraz bizi nahi dut krosa Lesakan. Baina kirolaz gain, egitarau zabala prestatu dute larunbat arratsalderako, kirol munduan euskara erabiltzeko mezua zabaltzeko asmoarekin.

- 16:00etan: Izen ematea eta kamiseta salmenta.
- 16:45ean: Beroketa.
- 17:00etan: Kirolari adierazpena, zinta mozketak eta lasterketak abiatzea (gogoan izan maila ezberdinak eta ataxi-amatxientzat ere, 500 metroko lasterketa egingen dela).
- 17:00etan: Bertsolariak.
- 18:30ean: Skate, pa-

tin eta bizikleta erakustaldia.

- 19:00etan: Diploma banaketa eta zozketa.
- 19:30ean: Koreografia. *Euskaraz bizi nahi dut.*
- 20:00etan: Opilak eta edatekoa. Musika eta besta giroa.

Bertso gaztain jatea azaroaren 2an Basurden

Larunbat honetan, azaroak 2, arratseko 9etan bertso gaztain jate saioa antolatu du Bortzirietako bertso eskolak, udalaren eta Euskara Mankomunitatearen laguntzaz. Pintxoak,



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Mural ederra margotu dute Antepatako parkean

Umeek jolasteko parke dotore eta apaina gelditu da Antepatan. Gazte Asanbladako kideek, gurasoek eta bertze laguntzaileek zenbait asteburutan auzolanen, paretak eta aulkiak koloretsu margotu dituzte eta argazkian ageri den mural polit hori ere marraztu dute. Ea oraingoan ez den hormak zikintzen eta zirriborrotzen duen bertze "laguntzailerik" agertzen...

gaztainak eta bertso saio bikaina aditzearen truke 3 euro bertzerik ez

da ordaindu beharko. Andoni Egaña eta Amets Arzallus ariko di-

ra kantari, Josu Goikoetxea gai-jartzailearen erranetara.



KULTURA → AZAROAREN 1EAN

Jazz emanaldia eginen da elizan ortziralean

Kultur Etxea laguntzeko izanen da

Irune eta Itsaso

Azaroaren 1ean, ortziralean arratseko 7etan "Les petits baigneurs" jazz emanaldia izanen da Elizan. Kultur etxeak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien artean, urtean behin, ekitaldi berezi bat antolatuko da, urteko ekitaldia bezala ezagutzera emanen dena. Hau izanen da aurtengoa.

Marrazki bizidun tailerra

Azaroko lau asteazkenetarako marrazki bizidun tailerra antolatuko da Kultur etxean. 17:00etatik 18:00etara izanen da eta 8 urte baino gehiago dituztenek parte hartzeko aukera izanen dute. Horretarako Kultur etxeko txartela izan beharko du edo bertze euro bat ordaindu, lau saioetan

parte hartzeko. Ez da beharrezko saio guztietara agertzea, baina paupera, arkatza eta borragoma norberak eraman beharrekoak dira.

Jendetsua izan zen usategietako igandea

Eguraldi ezinhobea egin zuen eta jende aunitz hurbildu zen urriaren 20an usategietara. 14 uso erori ziren sareetan eta han suertatu zirenek, usoak sareetatik nola ateratzen zituzten ikusteko zortea izan zuten. Goizean hurbildutakoek saski eder baten zozketan parte hartzeko boletoak erosi ahal izan zituzten, eta Azpeitiko batzuk suertatu ziren saridunak.

Bisiten inguruan berri, aurten inoiz baino jende gehiago ari da animatzen bisitak egitera (tartean baita herritar batzuk ere, espreski antolatutako bisitetan). Usategietako igandean 52 lagunek egin zuten



ARGAZKIAK: AMAIA ZELAIETA ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Onddo handia

Urriaren 12an ospatu zen II. gazte eguna. Gosaria izan zuten gazteek La Basque jatetxean eta ondotik paella txapelketa egin zuten frontoian. 60 bat lagun bildu zen bazkaltzera. Arratsaldean jokuak egin zituzten eta ilunabar aldera trikipoteoa. Gauerako jende andana hurbildu zen Herstura, Zopilotes Txirriaos, Soñadores Natos eta DJ Mattin Maia ikustera. Eguna polita pasa zuten.

bisita. Goizean Lizaetan egon zen talo postua hagitx arrakastatsua izan zen. Arratsalde-ilunabarrean ere plaza ingurua beteta egon zen eta Kupela taldearen erromeria doinuekin egunak akabera polita izan zuten.



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

Larraburuko ekitaldiak

Sukaldaritza ikastaroa izanen da Larraburuan Iñaki Pikabearen eskutik, azaroaren 8tik abenduaren 20ra arte. Denentzako idekia da.

Bertze aldetik, urriaren 18an Mirentxu Goleitxek doluari buruzko

Sasoia urriaren 1ean hasi zen eta hego haizeak bazterrak dezentetan astindu dituen arren, oraindik uso gutti etorri da. Usategietako igandera arte, 15 dozena uso jaso dituzte.

hitzaldi interesgarria eman zuten.

Organo kontzertuko DVDak salgai

Abuztuan Joxe Benantzi Bilbaok Etxalar-

ko Elizan eman zuten organo kontzertuaren DVD-ak salgai daude 7 eurotan. Eskuratu nahi duenak 677 866 560 telefonora deitu behar du (Garbiñe).

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA: 948 638 232
Koskontako bidea, 7
31770 LESAKA

Zatuz dena berri ezagutzera!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBIK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentxak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (jerezarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERREKALDE

PLAZA KULTURAKO ETXEA

PLAZAK
KULTURAK

TFNBA: 948 630 259 BERA

ERROTAZAR

harategia

Bertako produktuak

Etegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 1EAN

Gazta eta ahari lehiaketak eginen dira Baserritarren Egunean

Barazki, gozoki, zerriki, azienda eta eskulanean erakusketa eta salmenta izanen dira plazan eta frontoian

Nerea ALTZURI

Aitzineko alean udazkeneko kultur ekimenen berri eman baldin bagenuen ere, aldi honetan, datu eta xehetasun gehiagorekin hornituko ditugu kulturaldiko bi egunak.

Euskara Mankomunitateko teknikariak, udaleko ordezkari eta herriko bertze elkarteetako ordezkariak osatzen duten Euskara Batzordeak, ortziralerako eta larunbaterako aukera ezberdinak antolatu ditu herrian.

Ortziralean, azaroa-

ren 1ean, Ekaitza elkar-teak antolatutako Baserritarren eguneko he-mezortzigarren edizioa ospatuko da. Herriko plaza eta frontoian barazki, gozoki, eskulan, zerriki eta azienden erakusketa eta salmenta izanen dira. Herritarrek beurek egiten dutena ikusgai jarri edo salgai paratzeko postu andana izaten da bertako eta kanpotik etorritako bisitarien gustagarri.

Aurten, bertze urte batez, gazta eta ahari lehiaketak eginen dira.

Herriko ardi gazta hoberenak 60 euroko saria jasoko du; bigarren saria 40 eurokoa da eta hirugarren saridunak 20 euro jasoko ditu.

Ahari lehiaketari dagokionez, bi sari daude: Lehenengo saria 50 eurokoa da eta bigarrena 25 eurokoa.

Ardi eta ahuntzen erakusketa indartze aldera, zazpi buruko lotteak ekartzen dituztenei



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Henorea hala da... ehiztarien joan etorria etengabea den sasoi honetan, udazkeneko bertze lore batzuk patxadaz hartzen dute eguna. Beharbada baserri batzuetan horrelakoak ikusten dira baina guttitan erakusten ditugu ataltxo honetan... Bi xexeko ageri zaizkigu amatxoren goxotasunean elikatzen... Hori bai ederra!! Ah, eta udazkeneko belar berdea da... oraindik belagaiak berde berdeak ditugu!

50 euro emanen zaizkie.

Horretaz gain, urtero bezalaxe ostatua jarririko da eta aldi honetan, bertan eskaintzen diren pintxo eta traguxketatik ateratzen den dirua Pelle TTiki haur eskolarentzat izanen da.

Bertzalde, aurten lehendabiziko aldiz, eskolako guraso elkarteak ere postu bat jarriko du eta bertan, heldu den urteko egutegiak, eskolako ehungarren urteurreneko motxilak eta dvd-ak salgai jarriko dituzte. Lerro hauen bidez, guraso elkarteak egutegia osatzeko

diruz lagundu duten guzietan eskerrak eman dizkie.

Baserritarren eguneko merkatuan edo azokan itzulixka bat egiteko aukera paregabea izanen da aurten ere eta nahi duzuen guziak gonbidatuak zaudete.

Gainera, egunean berean eta baita bihar-munean ere, Eskolaren ehungarren urteurreneko erakusketa ikusgai izanen da Zahar Txokon: ortziralean, goizeko 11 etatik ordubaterara eta, larunbatean, arratsaldeko zazpi eta erdietatik bederatzietara.

Larunbatean filmeak eta antzerkia

Azaroaren 2an, eskolako guraso elkartearen eskutik, 16:30etik aitzinera, haurrentzako filmak izanen dira Baskulan. Lehendabiziko marrazki bizidunak jarririko dira ttikientzat eta 17:30 aldera, koxkorragoentzat filma izanen da. Krispetak ere banatuko dira egonaldiaz gozatzeko.

Ilunabarreko 8etan berriz, Zirika Zirkusen *Patxila Lamur* helduentzako antzezlan ikusgai izanen da eskolako gimnasioan.

Jokin Pastor Arriazu
ETXEGINTZA eta INGENIERITZA
661 847 107
jokinpastor12@gmail.com

PREZIO EZIN HOBEAK

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☛ Langile autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-Kontrabutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GIZARTEA → AZAROAREN 6N MATXINBELTZENEAN

Sare sozialen inguruko trebakuntza saioa eskainiko da Lesakan

Lander
Arbelaitz
Argiako
kazetari eta
adituak
emanen du hiru
orduko
ikastaroa

TTIPI-TTAPA

Sare sozialen inguru-ko hiru orduko trebakuntza saioa antolatuko du Bortziritako Euskara Mankomunitateak.

Azaroaren 6an emanen da Lesakako euskaltzegan, Matxinbeltzenez, 17:00etatik aitzinean, teknologia berrien eta sare sozialen euskarazko erabilera bultzatzea, eta bereziki euskara ikasleak motibatuzeko helburuarekin.

IZEN EMATEA AZAROAREN 5A BITARTE

Lander Arbelaitz, Argiako kazetaria eta sare sozialetan aditua izanen da trebatzailea. Izen emateko epea urriaren

28tik azaroaren 5era zabalik izanen da, Bortziritako Euskara Mankomunitateko 948634125 telefonoan edo euskara@bortziriak.org helbide elektronikoan. Euskara ikasleek, solaslagunek eta langabetuek doan izanen dute saioa eta gainerakoek 10 euro ordaindu beharko dute. 12-15 laguneko taldea osatu nahi dute.

Eskura izanez gero, ordenagailu eramangarria eramatea eskatzen zaie parte hartzaileei,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lander Arbelaitz kazetariaren lana aski ezaguna da sare sozialetan. Berak emanen du trebakuntza saioa azaroaren 6an Matxinbeltzenez.

baina bertan ere hiru orduko ikastaroa izanen dira. Parte hartze ziurtagiria ere emanen da ikastaro bukaeran.

Edukiei dagokienez, zer den sare sozial bat, zeintzuk diren sare sozialik erabilienak, zer komunikatu daitekeen sare sozial batean, zein

abantaila duen norberarentzat edo norbere enpresarentzat sare sozialetan aritzeak, nola eman daitekeen alta sare sozialetan eta behin alta emanda zein ohitura hartu behar diren sare sozialetan emandako alta eraginkorra izateko ikasiko dute.

Bertsolari Txapelketa Nagasia 2013

FINALAURREKOAK

GERNIKA-LUMO Jai Alai pilotalekua Azaroak 9, 17:30ean	TOLOSA Usabal kiroldegia Azaroak 10, 17:30ean	OIARTZUN Elorso kiroldegia Azaroak 16, 17:30ean	MURGIA Palatu kiroldegia Azaroak 17, 17:30ean
ELIZONDO Baztan pilotalekua Azaroak 23, 17:30ean	DONOSTIA Atano III pilotalekua Azaroak 24, 17:30ean	MAULE Ororena ezker pareta Azaroak 30, 17:30ean	

www.bertsozale.com

ANTOLATZALEA  LAGUNTZALEA 

SUNBILLA

KIROLA → AZAROAREN 1EAN

Migel Latasaren omenezko pilota txapelketako finalak ortziralean jokatuko dira

Arruteneko frontoian egin orde z udal pilotalekuan egingen da aurten, leku faltarengatik

Maider PETRIRENA

Azaroaren 1ean Migel Latasaren oroimenezko pilota txapelketako finalak jokatuko dira udal pilotalekuan. Migel Latasa Sunbillako Arrutenea etxean jaio zen eta bizitza guztia eman zuen pilotaren munduan; erremontean eta palaz aritu zen afizionatu mailan eta urte

aunitzez Federazioaren barne ere lan egin zuen hautatzaile gisa. Txapelketa hau Migelen oroimenez antolatzen dute bere semeek, Antton Espelosinen laguntzarekin. Azken urteotan Arrutenea etxeak atzeko aldean duen frontoian egiten zuten txapelketa, baina aurten toki eskasiarengatik herriko pilotalekuan egitea erabaki dute. Puntako pilotari afizionatuak ekarri nahi dituzte eta bi mailatan banatu dute lehiaketa. Alde batetik, kadeteak arituko dira lau t'erdian eta bertetik, jubenilek, binaka jokatuko dute.



Ba al zenekien

Urriaren 22an hasi zela Udal Plan Orokorren hasierako onspena jendaurrean edukitzeko epea. Xehetasun gehiago NAOko 204. zenbakian eta aldizkari honen 45. orrian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrera anaiek bikain segitzen dute


Herrera anaiek elegante segitzen dute Diario de Navarrak antolatutako openean. Urriren 6an hasi ziren Oteiza de la Solanan eta azaroaren 24an bukatuko dute Lizarran. Guztira 8 asteburuetan karrerak izanen dituzte. Momentuz hiru egin dituzte eta lehendabiziko bietan postu berdina lortu dute. Enekok 3. postua eta Koldok berriz 2. Argazkian, Koldo ageri da Oteiza de la Solanan.



ARGAZKIA: MALI ARRETXEIA

Roxari Iraizoz omendua

Urriaren 17an Arkupeak Elkarteak bazkidearen besa ospatu zuen. 85 urte bete dituzten artean Roxari Iraizoz Bertiz herritarra zegoen. 1928ko abuztuaren 26an jaio zen Aldameneko Bordan eta bertan bizi izan da beti. Lau senidetatik bi bizi dira orain. Duela 58 urte Alberto Arretxearekin ezkondu zen eta lau seme-alaba, 10 iloba eta 2 birbiloba ditu. Gazte denboran ostatuan, baserrian eta Sunbillan zegoen antxoa fabrikari aritua. Jubilatuta ondok, berriz, baserrian, baratzean, josten, etab...



ARGAZKIA: MARIJO MAYORA

Liztorrak berriro

Urriaren 20an liztor asiaticoen izugarritzko kabiak ikusi zuen herritar batek eskolako patioan eta 112ra eman zuen abisua. Eguerdian partean suhiltzaileak bertaratu eta gaur etortzea eta erretzea erabaki zuten.

FLASH

Bide Berdea

Bidasoko Bide Berdea erregulatzen duen Ordenantzen borradoreari 7 alegazio aurkeztu zaizkio udaletxean, 400 sinadura ingururekin. Eskatzen dena zera da: bidea orain arte bezala ibili ahal izatea, borradorearen xedapenek erabilera galarazi eta zailtzen dutela uste baitute sinatzaileek.

NATURA → 26.227,11 EUROKO KOSTUA

Arrainek Ezkurra errekan goiti egin dezaten malda bat eraiki dute

Jarritako harri-lubetak saneamendurako hodi batek eraturiko presa saihesten du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak malda bat eraiki du Ezkurra errekan ibilguan lehendik zegoen presa saihesteko, erreka arrainen migrazioa hobetu ahal izateko. Presa, Bidasoa ibaiarekiko bilgunetik 300 metro ingurura dagoena, arrainek «igarotzeko zailtzat» zegoen kalifikatuta, Nafarroako Gobernuak 2001ean egin zuen baina berriki eguneratu den presen eta oztopoen inbentarioaren arabera.

Antzina eraikitako desnibela da. Hasiera batean Erdi Aroko errota baten instalazioen parte zen eta, azken 20

urteetan, herriko saneamendurako hodi-biltzalea dago bertan. Hodiak Elizagibela aldea sare nagusiarekin lortzen du. Presa ttikiak metro eta erdiko desnibela zuen eta neurri handiko arrain batzuek eta baldintza jakinetan bakarrik egin zezaketen presan goiti. Kasu honetan, irtenbidea harri-lubeta eraikitzea izan da, malda gisa, desnibela kentzeko. 26.227,11 euroko kostua izan duen jarduerari esker, arrainen mugikortasuna eta izokinen igoera erraztu dira ugaltzeko baldintza ezin hobeak dituen tarte horretan.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak burutu duen jarduera iragazkortzeko ekintza estrategikoa izan da, tarte hori Bidasoaren adar nagusia den Ezkurra ibaiaren gunerik baxuena delako.



ARGAZKIAK: NAFARROAKO GOBERNUA

Presaren lehen eta harri-lubetarekin malda eraiki ondotik.

Erreka berriak

Erreka dantza taldea aurten ere helduentzako ikastaroa ematen ari da.

Nesken atletismo taldea ere lanean ari da

ortzegunero 20:00etan, 24 kirolarirekin.

Triatloi sekzioa ere martxan dago. Bi aukera eman dituzte taldean ibili ahal izateko. Batetik ekipoa sartu eta

monoa erostea, hori norberak egin beharko du. Bertzetik, ekipoa sartu eta monoa erostez gain, federatzea. Informazio gehiago: errekatriatlon@gmail.com

Azaroak 15

Outlet

Parrokia kalean

%70 arte



LENTZERIA 5€tik
Barruko arropa
(kamisetak, pijamak,
kortseteria...)
Kaleko arropa



HAURREN ARROPA 6€tik
(galtzak, berriak,
kamisetak, soineloak...)

GIZARTEA

IKASTAROAK → AZAROAREN 13TIK AITZINERA

Norbere lana sortzen ikasteko tailerra hasiko da Donezteben

Mikel Belascoainek emanen du Malerrekako Mankomunitatean

TTIPI-TTAPA

Sortu zure lana edo Zuk zeuretzat lan egin. Heldu den azaroaren 13an, Donezteben, Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan hasiko den tailerraren izenburua da. Langabezian edo lanean arituta ere, norbere lanpostua sortzeko asmotan dabil-tzanentzat edo berriki jardueraren bati heldu dionarentzat tailer apro-posa izan daiteke.

Teoria eta praktika konbinatuz, ideia berriak sortzea eta nork bere lana izateko proiektuak garatzea bilatzen eta motibatzen dute tailer-rean. Baliabideak edo estrategiak eman nahi zaizkie nork bere lana sortzeko asmoa dutenei, aukera emanez jarduera bati heltzeko segurtasunez; hau da, non



UTZITAKO ARGAZKIA

Nola saldu denbora nahasietan ikastaroan parte hartu zutenak.

'sartzen' diren kontrolatuz.

Mikel Belascoain, aholkulari eta sortzailea, izanen da irakaslea. Hark badaki berak izandako eskarmentuz zer den nork bere lana sortzea. Horretaz gain, berriki, bere izaera berri-zaileak proiektu sortzaile bat batera finantzatzera bultzatu du, taldeko finantziazioaren bitartez.

Prestakuntza hori

'Enpresa txikiendako prestakuntza, 2013 CED -2014-2015 Aurrekontua' izeneko proiektuan bultzatzen den ikastaro-programaren barnean kokatzen da. Proiektuak 27.500 euroko aurrekontua du, eta 'LGENF' Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen du, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapene-

rako 2007-2013 Programaren bidez.

Bertze aldetik, urriaren 1, 8 eta 15ean "Nola saldu denbora nahasietan" izeneko ikastaroa eman zuen Ceder-na Garalur Elkartek Malerrekako Mankomunitatean. Hamabi lagun-ek parte hartu zuten, gehienak merkataritza, zerbitzu eta turismo sektorekoak eta formakuntza garrantziaz jabetu ziren.

GIZARTEA

Beharrezkoak ez diren gas azterketak egiten ari direla ohartarazi du Foru Poliziak

TTIPI-TTAPA

Malerrekan, Leizaldea eta Bortzirietan behar ez diren gas azterketak egiten ari direla jakinarazi du Foru Poliziak. Legezkoa den Eurogas enpresaren izenean egiten ari dira azterketak edo osagai aldaketak. Kobratzerako orduan ere kostatzen dena baino gehiago kobratzen omen dute: Foru Poliziaren arabera, gasaren goma aldaketa berez 10 euro inguru kostatzen bada, hauek 80 euro kobratzera ailega daitezke. Gisa-ko kasurik gertatuz gero, Foru Poliziari abisua emateko adierazi dute. Irache Kontsumitzaile elkarteak ere azterketa hauen inguruko oharra banatu du eta deus sinatu aitzinetik ongi informatzea aholkatu du, beti baitago zerbitzua kontratatzeke denbora.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Zaldia

ttiipi txartela

%10^{eko}
DESKONTUA
produktuetan

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11N ETA 19AN

Gaztain jatetik gau afrikarrera udazkeneko arratsak goxatzeko

Jende aunitz, Afrikako musika eta dantzak eta haizego epela ekarri zituen Makulu Ken taldearen kontzertuak

Mattin LARRALDE

Urriaren 11n izan zen aurten urtero egiten den gaztain jatea. Urtetik urtera jende gehiago izaten da bertan eta gaztain jate soila izatetik be-

rendu afaria izatera ere pasatu dela liteke jendeak patata tortila, bizkotxoak, sagardoa, ardoa, pastelxoak.. ekartzen dituelako etxetik. Azken hiru urte hauetan bainuetxera etortzen den gizon baten bisita ere izan genuen. Txistua primeran jotzen du eta herrian zegoela probestuz bere musikarekin alaitu zuen giroa eta bertan zegoen jende guzia.

Bertze aldetik, hilaren 19an, larunbatarekin herriko ostatuan izan



ARGAZKIA: EDORTA AMURUA

Musika ez ezik, Afrikako dantzak ere izan ziren Makulu Ken taldearekin.

zen kontzertua aipatu beharra dago. Afrikar musika jotzen duen Makulu Ken taldea izan zen eta musikaz gain, bi dantzari ere ekarri zituzten. Jendez gainezka zegoen herriko ostatuaren ingurua, kanpoan izan baitzen kontzertua eta zebilen haizegoarekin Afrikan ginela zirudien. Sortu zen giroa kusita zorionak eman behar zaizkie ostatukoei besta antolatzeagatik.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Giro polita izan da aurten ere gaztain jatean.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**ESKAINITZA:
Nordikoak**

- edredoi fundak
- albornoak
- edredoi nordikoak
- ohi-estalkiak
- maindireak
- mantelak
- kuxinak
- toailak

Tafalla, 13 - IRUÑEA
948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 7TIK 11RA

Aurtizko San Martin bestak egitarau bete beteaz datoz

Larunbatean gaupasa izanen da Altxatu eta Trikidantz taldeekin

Arkaitz MINDEGIA

Bortz eguneko egitarau zabala prestatu dute Aurtitzen. San Martin bestak behar den bezala ospatzeko hainbat ekitaldi izanen dituzte.

ORTZEGUNA, AZAROAK 7 BESTA BEZPERA

• 19:00 Altxaferua, Beste hasiera emateko eta

gero kalejira bertako txistulari eta trikitilari- en eskutik.

- 22:30 Mus txapelketa ostatuan. Ondoren triki poteoa Herriko Trikitilariekin.

ORTZIRALA, AZAROAK 8 HERRITARREN EGUNA

- 10:00 Argisoinua
- 12:00 Herri Kirolak. Herritarrek elkarren kontra
- 14:00 Herri bazkaria eginen da elkartearen. Bertsolariak: Iñaki Aleman eta Ander Lizarralde. Joxe Anjel akordeoilariak eta Erramun



UTZITAKO ARGAZKIA

Tuterako Nafarroa Oinezan izandako arrakastaren ondotik, Aurtizko bestetan joko du Trikidantz musika taldeak.

Martikorenarekin giro- turik arratsaldean

- 21:00 Zopak Aurtizko Ostatuan. Gauez gaupasa DJ Luismirekin.

LARUNBATA, AZAROAK 9

- 10:00 Argisoinua.
- 11:00 Haur jokuak.
- 13:00 Haurren bazkaria eginen da elkartearen.
- 17:00 Trikitixa jaialdia. Haultzat berendua izanen da elkartearen.

- 00:00tik aurrera gaupasa ALTXATU eta TRIKIDANTZ taldeekin.

IGANDEA, AZAROAK 10 SAN MARTIN BEZPERA

- 10:00 Argisoinua. Goizean zehar Artisauak.
- 17:30 Ibintza dantzarien erakustaldia. Ondotik Joxe Anjel akordeoilaria.
- 21:30 Herri afaria Aurtizko ostatuan.

ASTELEHENA, AZAROAK 11 SAN MARTIN EGUNA

- 10:00 Argisoinua.
- 11:00 Meza nagusia San Martin Donearen alde.
- Ondotik bertako gazteen pilota txapelketaren finala.
- Arratsaldean Tortilla eta Postre lehiaketa. Ondotik jatea eta bertako Trikitilariak alaiturik emanen zaie bukaera San Martine!

GIZARTEA → LEITZAKO ETA BERAKO GAZTE BATZUK HARTU DUTE

Aurtizko ostatuak atear irekiko ditu urriaren 31n

Arkaitz MINDEGIA

Aurtizko Ostatuak bere atear irekiko ditu urriaren 31n. Leitzako eta Berako hiru gaztek beraien gogo eta ilusioak jarri dituzte, ederki apaindu, pintatu eta dekoratu dute. Ilusioz beteak daude eta aurrera begira ideia eta gauza politikak egiteko asmoa dute Aurtizko ostatuan. Beraz, animatu urriaren 31tik aurrera Aurtizko

Ostatura bixitatxo bat egitera.

Artisau eta lanbide azoka Aurtizen

Malerreka trukerrekaren ekimenez hilabetero egiten den Artisau eta Lanbide azokak badi azarorako data. Hilaren 10an, igandearekin eginen da, baina oraingoan lekuz aldatuko da: Iturengo plazatik Aurtizko frontoi eta

kaleetara pasatuko da, hain zuzen ere Aurtizko besten barrenean izanen baita. Hilero bezala, gisa guzietako postuak izanen dira. Aurtizera hurbiltzeko bertze arrazoi bat.

Javier Sein

Herriko txirrindulari gazte hau, atsedenaldirik baten ondotik, berriro ere martxan dago. Diario de Navarrako



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hileroko truke azoka Aurtizen eginen da azaroan.

openean parte hartzen hasi da. Joan den urteko edizioa irabaztea lortu zuen eta aurtengoan ere ederki hasi da. Otezan izandako lehenengo karreraren laugarren postuan geratu zen eta Ororbian jokatu zen bigarren karreraren, berriz, bigarren. Puntuazioak gehituz, orain sailkapen orokorrean bigarren postuan dabil. Aupa eta segi horrela.

Ugaitz Elizalde

Ugaitz Elizalde gogor eta indartsu dabil eskupilotan, binaka nahiz banaka. Urriaren 12n, 22 urtez beheitiko Nafarroako finala jokatu zuen, baina azpitxapeladun gelditu zen. Oberenako Joseba Apeztegiak 18-12 irabaz zion. Gogoratu behar da iaz gazte mailako txapelketa irabazi zuela Elizalde.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11 ETA 12AN

Giro ederrean joan zen Euskararen Eguna

85 lagun bildu
ziren herri
bazkarian

Fermin ETXEKOLONEA

Euskararen Eguna polita antolatu zuten gazteek. Ostiraleko pintxo lehiaketan hamalau partaide izan ziren Errandonea ostatuan eta Eva Elizalde izan zen garaila. Mus txapelketan sei bikote bildu ziren eta Xanti Hualde eta Jose-txo Elizalde suertatu ziren txapeldun, finalean Beñat eta Oinatzi irabazita. Rosa Arburuak mintzaldi interesgarria eskaini zuen Herriko

Ostatuan, garai bateko emigrazioari buruz.

Larunbata izan zen egun handia eta eguraldiak eta jendeak ere lagundu zuen. Artisau kuadrila atera zen plazara. Trikitilariak eta joaldunak ere alaitu zuten herria. Muxiko taldera ere jende asko bildu zen eta dantza politikak eskaini zituzten plazan. Aizkora apustuan, Joxe Antonio Loiarde eta Mikel Indakoetxea garaila suertatu ziren. Ezeki-el Loiarde eta Raul Kastro izan zituzten aurkari, hamar enborrera. Ikuskizun polita eskaini zuten. Zorionak ira-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Herri bazkarian animazio handia izan zen. 85 lagun bildu ziren, tartean menu berezia izan zuten dozena bat haur ere.

bazleei eta galtzaileei animo!

Herri bazkarian 85 bat lagun bildu ziren, tartean dozena bat haur. Beraientzat menu berezia ere izan zen. Aitzol Barandiaran eta Oihana Bartra bertsolariek ere saio polita eskaini zuten. Karrikaz karrika ere ibili ziren bertso kantari, animazio ederrarekin.

Urdaiazpiko eta gazta lehiaketan, urdaiazpikoa Flora Loiarde eta gazta Flora Loiarde eta Leire Argotek eta Beñat Irasuegik erdibana. Ines Gerekak emandako birtziklapen tailerren haur dexente bildu zen eta Zesuma taldearekin dantzan ibili ziren animatuenak.

Herriko Ostatuan kontzertua

Urko Menaia kantatore donostiarra arituko da kantuan Herriko Ostatuan azaroaren 1ean, ortziralez, gaueko 9:30ean.

Kantari gaztea da Urko, ahots sakon eta indartsuz poesiaz betetako bere kantak goxo goxo abesten dituena.

ESKULANAK → DUELA 15 URTE HASI ZEN EGURRA LANTZEN «DENBORA PASA»

Mikel Aingeruaren irudia egin du Iriarteko Migel Arregik

Haritz amerikar enbor batean landu du bi hilabetez

TTIPI-TTAPA

Duela 15 urte hasi zen Iriarteko Mikel Arregi egurra lantzen, jubilatut zenean, eta berak dioen bezala, «denbora pasa». Lehendik ere egurrerako afizioa bazuen arren, ez omen zekien tailatzen eta hasitako angustia hartu zio-la esan digu. Geroztik, koadroak, erlojuak... lan

saila egin ditu, baita 13,5 metroko egurrezko kate bat ere. Denak ere etxerako edo oparitzeko landu ditu, eta ez saltzeko. Orain, berriz, Mikel Aingeruaren irudia egin du egurrean, baita dotore egin ere, xehe-tasun guztiekin egin baitu aurrekaldetik zein atzekaldetik. Haritz amerikarraren enborra hartu eta bi hilabete pasatu ditu argazkian ageri den Mikel Aingeruaren irudia egiten, eta onartu digunez, «oso gustura» dago egindako lanarekin. Ez da gu-

txiagorako, lan handia egin baitu. San Migeletik ekarritako postalarekin hasi omen zen irudia egiten, baina postalean aurrekaldea bakarrik ageri zenez, azaldu digu atzekaldea nolakoa den ikusteko baldiz joan zela San Migelera argazkiak ateratzera.

Mikel Aingeruaren irudia egurrean eginda, ametsa egi bihurtu omen zaio Iriartekoari. Honela kontatu digu: «orain dela bizpahiru urte Mikel Aingeruaren irudia egurrean egiteko



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Iriarteko Mikel Arregi, aingeruaren irudi dotorearekin.

ametsa izan nuen. Hortaz, aurtan amets hori bete zait eta gaur besoetan daukat. Irudi hau egiten ari nintzela laguntzen bazidan, Mendaurrera igoko nintzela agindu nion. Eta hitza bete dut eta handik es-

kerrak eman dizkiot. Orain, berriz, mesede bat eskatu diot. 74 urte ditut eta pila edo *mon-ton* honetatik hamar urte kentzeko, mesedez».

Betetzeko zailagoa izanen da amets hori, beharbada.

SALDIAS

GIZARTEA → UDAZKEN GARAIA

Uso saila bota dute herriko ehiztariek

70 uso bota dituzte Barbaran eta beste 30 Urrutinan, egun berean

Markel LIZASOAIN

Gaztainazitua berandu etorri da, eta usoak ere bai. Baina ailegatu badira ailegatu dira horiek ere, beren ibili nekosoan. Hilaren 18ko argazkiak dira horiek. Barbarako eta Urrutinako postuetan bota zituzten uso, txoloma eta biligarroenak. Saitltxo polita egun bakarrerako. Barbaran ziren Koxkorro, Muxarro anaiak, Danbolineko bi gazteenak eta Oskar, eta Urrutinan, Migel Angel, Juan Mari eta Zorion. Eguna akitu eta gero, Barbarako postuetan egon zirenak Musarreneko atarian aritu ziren partizioa egiten. «Hik honako txaloma hoiak eta nik beste hoi-

ek». «Hik harzkik lau uso horiek eta nik horrako horiek», eta haien inguruan jende franko begira eta ehizaldiaz jolasean. Eskasia delarik, ez da halako adiskidantzarik izaten, baina, hainbeste bota eta gero, denentzat aski, eta denak conforme!

ARG.: OTSONGO BORDAKO ZORION
Otsongo Bordako atarian ere uso mordoska.

ARGAZKIA: MIKELENGO AHINIZ
Ibai biligarroak hartu eta segituan joan zen Apezengo atarira haiek lumatzera.



ARGAZKIA: DANBOLINGO HARITZ

Tiratzaile trebeak.



BAZTAN-BIDASOA

Azpiegitura lanetarako dirulaguntza eman dute Nafarroako Gobernutik

TTIPI-TTAPA

Baztanen, **Elizondo**-ko hornidura-sarearen soluzioaren lehenbiziko faserako 384.630,5 euroko dirulaguntza jasoko dute, (876.368 euro inbertsioa) eta Iru-itako sarearen soluzioaren bigarren fase-rako 278.538 euroko subentzioa (365.194 euro inbertsioa). Amaiur, Aniz, Berroeta eta Gartzaingo bideak konpontzeko 41.913 euroko dirulaguntza emanen dute (313.027 euroko inbertsioa). Beintza-Labaienek 39.856 euroko dirulaguntza jasoko du hilerriko bidea zolaberritzeko (142.345,08 euroko inbertsioa). Donamariako Udalak, Gazteluko ur-hornidurarako 87.760,91 euroko dirulaguntza (117.989,68 euroko inbertsioan). Sunbillako Udalak, Garaigarri eta Donibane karrikak zolaberritzeko 338.817 euroko subentzioa hartuko du (907.527 euroko inbertsioa) eta Urrozen goiko ur hornidura sarrerako 37.147 euroko dirulaguntza hartuko dute (107.507 euroko inbertsioa). **NILSA**k ere jasoko du 751.125 euroko dirulaguntza, Nafarroa 2012 Planaren baitan egiten ari den Bidasoko erdialdearen azterketan, NARBATE eta LEGASA zatia aztertzeko (2.013.037,28 euroko inbertsioa).

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

BERA
Zere inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinorro, armiarna, kukuxu...) eta erratoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Gerbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJUN

URROZ

BERTIZ

GIZARTEA → ERLIJOA

Xabier Gorosterrazu herriko semea beato egin dute

Urriaren 13an Tarragonan beatifikatu zuten

Joseba URROTZ

Urriaren 13an, Tarragonan, eliza katolikoak XX. Mendeko 522 martiri espainiar beato egin zituen, haien artean Urrozko semea zen Xabier Gorosterrazu Jaunarena. Beatifikazioa goiti beheiti, mutil haren bizia aipatzeak mezezi du, gurea bezalako herri ttiki batetik ateri eta zenbat pasadizo izan zituen kontuan hartzen badugu.

1877an jaio zen Xabier. 12 urterekin Labaiera joan zen atautxiri artzain lanetan laguntzera eta 14rekin berriz Urrozera itzuli zen. Orduko, nonbait, erlijiorako interesa piztua zitzaien eta Lekarozeko kaputxinoetan sartzeko saiaketa egin zuen. Ez zuten onartu, ordea, zaharregia zela iritzita. Hala ere, Iruñeko San Inazio Redentoristen ordeneko bi lagun herrira predikatzen etorri ziren

batean, harremanetan jarri eta Iruñean misiolari hauen buruarekin solasteko modua egin zuen. Onartu zuten, baina laguntzaile bezala. Zurgin ofizioarekin, apaizgintzan sartzeko berandu zela uste zuten, ikasketa gutti zutelako eta euskaraz bertzerik mintzatzen zelako.

Postulatua Astorgan egin zuen eta nobiziatua Nava del Rey-en, non, bere adimen handiaz oharturik apaizgintzara bideratu zuten. Bere ikasteko nekazintasunagatik, teologia ikasi eta maila bikainarekin akitu zituen ikasketak, 1903an apaiz egin zelarik. Gero, Astorgara itzuli zen, oraingoan Filosofia eta Zientzia irakasle bezala. Talentu, jakinduria eta pentsamendu haundiko gizona omen zen. 1913an Iruñera etorri zen, euskaraz eta gaztelaraz misiolari lanak egitera, 1927a arte. Ondotik Madrilera destinatu zuten 1930era arte, ondotik, bertze hiru urtetarako Iruñera itzuli zen. Azkenik 1933an Cuen-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Xabier Gorosterrazu Jaunarena beato egin zuten, urriaren 13an Tarragonan egindako ekitaldian.

cara eramán zuten probisionaliki, Vaticano-ra joatekoa baitzen, hango isilpeko artxiboetan fray Bartolome de Carranzari buruzko ikerketa egiteko.

Baina asmoak bidean gelditu ziren, 1936ko gudaren ondorioz. Ihes egiten saiatu zen, baina abuztuaren 10ean bertze lagun bateri lotuta, fusilatu zuten. Bere gorpuzkiak Madrilendaude lurperaturik.

Liburu batzuk ere argitaratu zituen. Rodrigo Jimenez de Rada artzapezpikuaren biografia, Historiaren Akademia Errealak talentuari emandako saria jaso zuena. Arnaut Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanae*, lana latinetik gaztelarera ere itzuli zuten, 'Historia de las dos vasconias, iberica y aquitana' izenburupean, arrakasta izan zuen.

GASTRONOMIA

Hamahiru jatetxek parte hartuko dute ehizari buruzko jardunaldietan

TTIPI-TTAPA

Bertziko Partzuego Turistikoak antolatuta, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hamahiru jatetxek parte hartuko dute aurten XXI. aldiz egiten ari diren ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan. Gure inguruan ehizatutako jakiak beteko dituzte jatetxetako eltzeak. Dagoeneko egutegia finkatua dagoen ekimena urriaren 27an hasi zen eta abenduaren 1era arte iraunen du. Tarte horretan 27 eta 32 euro arteko menuak eskainiko dituzte. Hauek dira ehizari lotutako menu bereziak eskainiko dituzten jatetxeak: Almandozko Beola, Arantzako Aterpe eta Burlada, Arizkongo Ordoki, Berako Zalain eta Zubiondo, Donamariako Benta, Elbeteko posada, Etxalarko Benta hotela, Igantziko La Villa, Iruritako Olari, Oizko Posada eta Oronoz-Mugairiko Urgain. Urteroko moduan informazio eta orriak ilustrazio berezi batekin apaindu dituzte. Aurtan, Jaime Fortunaren lana aukeratu dute.

EHIZARI BURUZKO XXI. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK
Urriaren 25etik abenduaren 1era www.consorciobertiz.org

BEOLA | BURLADA | ATERPE ERRETEGIA | ORDOKI | ZALAIN | ZUBIONDO
DONAMARIAKO BENTA | ELBETEKO POSADA | HOTEL VENTA ETXALAR
LA VILLA | OLARI | POSADA DE OITZ | URGAIN

MENUEN info. gehiago: www.consorciobertiz.org | T. 948 592 323

ANTOLATZAZALEA: **BERTZIKO PARTZUEGO TURISTIKOAK**
www.consorciobertiz.org

Leguntzailak:

EZKURRA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 12AN

Umeen festa arrakastatsua izan zen

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 12an ospatu zen umeen festa eta parte hartzea handia izan zen. Ezkurrako ttiki-entzuen, inguruko herrietakoekin eta asteburu pasa Ezkurrara etortzen direnekin batera gozatu ederra hartu zuten.

Udaletxeko bilera gela hasi zen besta, Ines Bengoa ipuin kontalaria-riaren saioarekin. 'Karabi karaba' izeneko emanaldiarekin haurrak eta ez hain haurrak ere txundituta utzi zituen.

Txokolatada egin zen eta gero, iluntzera arte besta giroan segitu zuten jolasean.

Arkupeak elkarteak omenduak

Urriaren 17an ospatu zen Arkupeak Elkarte-ko besta. Ezkurrako bi herritar omendu zituzten, 85 urte bete dituzten Kontxita eta Martin. Meza ondoan jaso zuten omenaldia, beraien familiako kideak alboan zizutela.

Kontxita Garziarena 1928an jaio zen Ezkurraren. Hamabi senideetatik zazpigarrena, 32 urterekin ezkondu zen Martin Noblerekin eta bost seme-alaba izan zituzten. Senarra duela zortzi urte hil zen. 8 bi-



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Goiko argazkian Martin Mariezkurrena ageri da familiarekin eta ondoan Kontxita Garziarena.

loba eta 2 birloba ditu.

Martin Mariezkurrena 1928ko maiatzaren 10ean jaio zen Eratsunen. Maria Izaskun Apeztegiarekin ezkondu zen 1973an eta Ezkurrara etorri zen bizitzera. Tornainea Bordan bizi dira.



ARANO

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 9AN

San Martin egunean egitarau polita prestatu dute

Ainhoa ANSA

Egitarau polita dago antolatuta San Martin egunerako. Eguraldia lagun bada, azaroaren 9an, larunbat goizean Mairu-Baratzetara ibilalditxo egingo da Luis del Barrio adituarekin. Arratsaldean, Ezkurraren-Bordako Pedro Marik artzai zakur erakustaldia aginendu. Ondoren, herriko web gu-

nearen aurkezpena egingo da. Baita argazki lehiaketako sari bana-keta ere. Azkenik, ohitura den bezala, taloak egin eta jango dituzte.

Argazki lehiaketa

Aranoko paisaia megalitikoak gaitzat hartuta argazki lehiaketa antolatu da San Martin inguru honetan. Edonork parte har dezake eta sa-



Argazki lehiaketa iragartzeko orriaren azala.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

ria Aranoko Bixargorri landetxean gaua eta Kontsejun otordua lau pertsonentzat da.

Senegalerako material bilketa

Senegalen, kalean bizi diren haurren egoe-

ra tamalgarriari aurre eginez lan egin du "Fundación Talibes" Elkarteak. Urte bukaerarako material bidalketa bat prestatu dute Nafarroatik eta Aranoarrei deia zabaltzeko nahi die- te beraien ekarpena egin

dezaten Udal Bulegoetan.

Eskola materiala, arropa eta oinetakoak, sukaldeko tresneria edota eraikuntzako erremintak ere bildu nahi dira. Bilketa azaroaren 14ra arte luzatuko da.

GIZARTEA → UMORE ONA EGUNA HILAREN 16AN

Ekitaldiz betetako azaroa heldu zaigu begibistara

Azaroaren
30eko Feria
Egunarekin
borobilduko da

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan mugimendu handiko hila-betea izaten da azaroa eta aurtengoa ere berdintsu izanen da, hainbat ekitaldi antolatutako baituzte herriko eragile ezberdinek.

Hasteko, azaroaren 8an, ostiralarekin, *Wukro-Etiopia* hitzaldia eskainiko da 19:30ean. Biharamunean, hilaren 9an, 11:00etan arrain zopa egiteko ikastaroa eskainiko dute. 10:30etik 12:00etara ume eramaile eta pixoi-halen inguruko tailerra emango dute Metaimaitieko kideek. 16:00etan mus eta truk txapelketak jokatu dira eta 17:00etan joko koope-

ratiboen erakusketa eskainiko du Dindaiak. As-teburua bukatzeko, hilaren 10ean, Jubilatuen Eguna ospatuko da pilota partidekin, bazkaria eta bertsolariekin.

Azaroaren 15ean, ostiral arratsaldeko 7:30ean *Baga, biga higa* emanaldi berezia eskainiko dute Eñaut Eloorrietak eta Mikel Markezek Gaztetxean. Hilaren 16rako, berriz, Umore Ona Eguna iragarrita dago: Bilboko abesbatzaren emanaldia, kantu poteoa, bazkaria, futbito partida, pilota partidak eta dantzarien saioak izanen dira.

Azaroaren 22an, ostiral arratseko 8etan bertso poteoa egingen da eta afariaren ondotik Xalto Sariketaren finala jokatu da Umore Ona elkartearen. Hilaren 23an *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa egingen da 16:30ean eta hi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ardo dastaketa egin dute Umore Ona elkartearen

Umore ona elkartearen ardo probaketa egin zuten urriaren 19an. Alde batetik elkartearen sartuko dituzten ardo berrien aukeraketa egin zuten eta beste aldetik Solagüen upategietako arduradun komertziala den Iñaki Rojo etorri zen ardoaren inguruko solasalditxo bat egitera. Harrera oso ona izan zuen ekitaldiak, 45 bat pertsona bertaratu baitziren eta oso giro politoan ospatu zen. Alde batetik kata horizontala egin zuten (urteko ardo klase berdina, baina marka edo upategi ezberdinetakoa) elkartearen ardoak aukeratzeko eta, bestetik, ardoen arteko desberdintasunak ikusteko, Solagüen upategiaren eskutik, kata bertikala non ardo txuri batetik hasi eta erreserba berezi batekin bukatu zuten.

laren 24an, *Herriko kixulabeak ezagutzen* mendi buelta egingen da J.J. Etxeberriarekin. Aipatu behar da joan den igandean egin dutela Umore Onako mendizaleek udazken eta denboraldi honetako lehen mendi buelta, denera sei garren ateraldia. Herriko plazatik abiatuta, Dominazpi, Tartazuko Harria, Bordaberriko Borda, Larritzko Borda eta Borda Berrin barna egin zuten itzulia, berriz ere herrira bueltatzeko.

Azaroaren azken larunbatean Feria Eguna ospatuko da eta horren inguruko zehatzak hurrengo alean emanen dugu, baina bezperan, *Nagore* dokumentala ere emanen dute.

BERTSOLARITXA

Txapelketa Nagusiko finalerako autobusa antolatu da

TTIPI-TTAPA

Goizuetako bertsozale batzuk autobusa antolatu dute abenduaren 15ean Barakaldoko BEC-en ospatuko den Euskal Herriko Bertso Txapelketako finalera joateko. Amairenean eman behar da izena. Eserleku guztiak betetzen badira, 12 euro ordaindu beharko ditu bidaiari bakoitzak.

LEITZA

GIZARTEA → ERREFORMEN AURREAN SALAKETAK

Hezkuntza lege berriari ezezko argia eman diote eskolan eta institutuan

Urriaren 31ko kontzentrazio deialdiekin ere bat egin dute

JM BARRIOLA

Leitzako Erleta eskolako eta Amazabal institutuko ikasle eta irakasleek bat eginda, ezezko borobila eman diote Wert ministroaren LOMCE legeari. Hezkuntzan aritzen diren sindikatu guztien deiarekin bat egin eta urriaren 17an protesta argazkia atera zuten. Protesta hauek adostutako salaketa egutegi batean kokatzen dira. Mobilizazio ugari egin dira Wert-ek proposatutako erreformaren aurka, tartean Iruñean urriaren 24an egin zen manifestazioa. Hilabeteko azken egunean, urriaren 31n zentro guztietan kontzentrazioak deitu dituzte.

Haurren masaje tailerra

Aurrekoaren arrakasta ikusita, bigarren ezartu dute haurrentzako masaje tailerra eta 7 familiak parte hartu dute. Bost saio izan dira irailean hasi eta urrira bitarte egindakoak.

Irakurle taldea abian da

Leitzaldeko euskara mankomunitateak, liburutegiak eta Kultur taldeak elkarlanean irakurle taldea sortu dute herrian, euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzeko asmoz. Momentuz hamabost bat lagun



Hezkuntza legearen aurkako salaketak egin dituzte ikasle eta irakasleek.

UTZITAKO ARGAZKIA

animatu dira parte hartzera. Liburu bat aukeratu, elkarrekin irakurriz gozatu eta komentatzea da helburua. Orain, zentabatero eta zein egunetan bilduko diren erabaki behar dute. Taldean parte hartu nahiko lukeen norbait balego, liburutegian galdetu eta izena eman dezake.

Hasi da zineko programazio berria

Urtero sasoi honetan bezalaxe, hasiak dira Leitzako zine emanaldiak. Ohiko ordutegia eta egunak mantenduko dituzte; ostiraletako saioak 22:30ean eta igandetakoak 19:30ean izanen dira. Urriaren 25 eta 27an eman zaio denboraldiari hasiera, Amor filmarekin. Horretaz gain zinelabur lehiaketako lanak ere bertan izan dira ikusgai. Hurrengo saioa azaroaren 1ean izango da, 'El llanero solitario' filma izango da

ikusgai. Azaroaren 8 eta 10ean berriz, 'La caza' filma ikusteko aukera izango da.

Azaroaren 9an berriz, iluntzeko 7etan hitzordu berezia izango da. Nagore Laffageren kasua azaltzen duen 'Nagore' dokumentala ikusteko aukera izango

delako. 20 urteko Irungo erizain ikasleak 2008ko Sanferminetan bizi izandako gertakari beltza azaltzen du filmak. Helena Tabernak zuzendutako filma ikusteaz gain, Asun Casasola, Nagoreren amaren testigantzak ere entzuteko aukera izango da, saio-

an bertan izango delako gonbidatuta.

Errigora ekimena

Ekimen honek auzolanean Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartzea du helburu. Horretarako eremu horretako nekazaritza produktuek Euskal Herri guztian zabaldu nahi dira "Nafar hegoaldeko uzta; Euskal Herriko puzka" du izena ekimenak eta lurraldetasuna aldarrikatu nahi dute. Kanpaina AEK, Sortzen, Ikastolen Elkarte eta Zazpiak Bat Harreman Sarearekin elkarlanean egingo da. 50 euroren truke, kalitate bikaineko produktuen saskia jaso ahalko da etxean, eta irabaziaren %25a euskarari laguntzeko bideratuko da. Torrean eta Peritzan jarriko dira saskiak, nolakoak diren ikusteko eta bertan izena eman daiteke saskia eskuratzeko laguntzaren truke.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

40 lagunek Torre libre izan dadin eskatu dute

Urriaren 17an hasi zen 35/02 sumarioaren epaiketa, 'Herriko tabernen auzia' izenez ezagutzen dena Espainiako Auzitegi Nazionalean. 110 'herriko tabernen' ordezkari eta 36 auzipetu pasako dira epailearen aurretik, tartean, Joseba Azpiroz leitzarra Torre Elkartearen lehendakari gisa. Hori salatuz, 40 bat lagun bildu ziren epaiketa hasi zen egunean Lopeneko aurrean, "Torre libre, epaiketarik ez" lelopean. Bono laguntzak ere jarri dituzte salgai, epaiketaren kostu ekonomikoari aurre egiteko.



Urriaren 26an, Joneren urtebetetze egunean, lagun eta familiak argazkia atera eta afaria izan zuten Pake Tokin.

ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

EPAIKETA → PARISKO AUZITEGIAN

Jone Lozano azaroaren 4an epaituko dute

Bertara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu dute

Juana Mari SAIZAR

2011ko martxoaren 21an atxilotu zuten gendarmek Jone Lozano aresoarra Frantziako Indre herrian. ETako kide izatea egotzita, bi urte eta erdi pasatxo daramatza preso Frantzian. Azaroaren 4an epaituko dute Parisko auzitegian eta bertara elkartasuna adieraztera joan nahi dutenentzat autobusa antolatu dute. Azaroaren 3an 22:00etan abiatuko da autobusa Leitzatik eta epaiketaren ondoren astelehen gauean bertan izango da itzulera. Txartelak alde zuzen erosi behar dira, 30 eurotan daude salgai Torrea tabernan. Horretaz gain, norbaitek laguntza ekonomikoa eskaini nahiko balu Euskadiko Kutxan kontua irekita dagoela jakinarazi dute. Urriaren

26an izan zen Jone Lozanoaren urtebetetzea eta urteroko ohiturari eutsiz, bere lagunak eta familiak batera ospatu zuten eguna. Lehendabizi elkarrekin argazkia atera eta ondoren afari eder batekin bukatu zuten eguna Pake Toki elkartearen.

Herriko pilotariak sasoiko

Areson pilotakaden oihartzuna ozen entzuten da berriro ere, herriko bi pilotari gazteak txapelketetan parte hartzeko aukeratuak izan baitira. Alde batek Anartz Olanok Diarrio Vasco txapelketan parte hartu du. Afizionatuetan, promesa mailan dabil gaztea eta lehen fasean Errandonea izan du aurkari. Partida Leitzako Amazabal frontoian jokatu zuen pasaren ostiralean. Albiste hau idazterako orduan partida oraindik ez zuen jokatu. Hala ere espero dugu emaitza onalortu izana. Bestalde Mikel Olazabal promozio txapelketan hasiko da



ARGAZKIA: IKER BARANDARAIN

Ehiztarien txabolan bazkaria

Urteroko ohiturari eutsiz, herriko ehiztariak bazkaria egin zuten txabolan urriaren 12an. Goizean plater tiraketan aritu ziren eta gero mahaiaren bueltan elkartu zen 20 laguneko koadriela. Gazteak eta hain gazteak ez direnak, herriko istorio zahar eta berriagoak dantzan jarri zituzten bazkalondoan giro bikainean. Urtero zioten argazkia atera behar zutela eta tira, aurten gogoratu dira!

aste bete barru. Gogorari da entrenatzen eta sasoi betean hasiko du txapelketa, ea lan on bat egiten duen honek ere. Zorte on!

Euskararen Eguna

Abenduko lehenengo asteburuan pesta antolatu izan da herrian euskararen eguna aintzakotzat hartuta. Aurten ere, hitzorduari hutsik egin gabe, antolakuntza lanetan hasiak dira. Aresoko Udala, Guraso Elkarte eta Lagunartea elkarrekin arduratzen dira festaren antolaketaz. Dagoeneko aurreratu dezakegu, Leitzako abesbatzaren bisita izango dugula,

kontzertua eskainiko baitute Aresoko elizan. Bestalde, Panpanoziri herri aldizkariaren bigarren alea ere egun horretan banatuko da. Azken hilabeteetako lanaren emaitza izango dute herritarrek etxetan. Badirudi oso gauza interesgarriak landu dituztela eta jakinmina dutenentzat aberasgarria izango dela.

Udaletxean berritze lanak

Udaletxe gaineko lehenengo solairuan berritze falta zen gelan lanean hasiak dira. Dagoeneko argiteria presatu dute eta paretak pladurrekin jartzez bu-

DIRU-LAGUNTZAK

817.696,93 euroko laguntza jasoko du Leitzako udalak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Foru Gobernuak Sakana eta Larraun-Leitzarango azpiegiturak sustatzeko diru-laguntzak zehaztu ditu berriki. Denera 4,19 milioi euro emango ditu eta horietatik Leitzako udalak 817.696,93 euroko laguntza jasoko du. Abian dauden lanak edo aurrez bukatu dituztenak finantzatzeko bideratuko dute laguntza, hala lanen kostuaren zati bat hartuko du Nafarroako Gobernuak bere gain. Zehazki, Leitzan ETAP edo ura edangarri bihurtzeko instalazioan egindako lanetara 587.542,12 euro bideratu dituzte (770.000 euroko kostua dute lanek) eta Amazabal auzoan egindako obretarako 230.154,81 euro bideratu dituzte bi zatitan banatuta. Amazabal auzoko zoladuraren berritzeko lanetarako 109.014,40 euro eman dituzte (374.013,43 ko kostua dute lanek) eta ur hornikuntzarako, euri uren eta ur beltzen saneamendurako sareak berritzeko 121.140,41 euro (478.545,23 euroko kostua dute lanek).

katzen ari dira orain. Gero lurra lixatu, txukundu eta prestatu beharko dute, eta bukatzeko pinitatu. Lan guztiak amaitutakoan udalak erabakiko du zein erabilera emanen dioten berritutako gelari.

GIZARTEA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 17AN

635 lagun bildu ziren Arkupeak Elkartearen Egunean

Omenaldi bereziak eskaini zituzten

Fernando ETXEBERRIA

Urriaren 17an ospatu zuten Arkupeak elkarteak Bazkideen Eguna eta benetan berezia izan da, ehun urte bete dituen Modesta Huarte lñarrea beratarra eta diamanitezko ezteiak bete dituzten bi bikote omendu dituztelako: Angel Martin eta Carmen Durruty eta Matias Irazoki eta Jossete Suso senar-emazteak. Horietaz gain, zazpi bikotek urrezko ezteiak bete dituzte eta 41 bazkidek 85 urte egin dituzte.

635 lagun bildu ziren bestan. Mikel Biain eta Ramon Apezetxea apai-zeak emandako meza entzun zuten eta horren aurretik, Pedro Bañaresek, guztiei ongietorria eman eta hildakoak go-goan izan zituen, Joxe Oronozi, elkarteak diruzaina izandakoari aipamen berezia eginez. Bukatutakoan, Irantzu Vazquez eta Jesus Maria Jimenez, Nafarroako Kutxako Fundazio-kideek, opariak eman zizkieten omenduei.

Zuk aukeratu, zuk erabaki ekimenaren ondorioz, Arkupeak elkarteak 8.170 euroko laguntza jaso du, 817 lagunek beraien egitasmoarekin bat egin zutelako. Diru-laguntzaz gain, Elkartekide guztiei

oparitxo bana ere eman zieten.

Besta egunean ere, elkartekideen esku-baltasuna agerian geratu zen. Duela hilabete batzuk, Arkupeak Elkarteak bat egin zuen Mankomunitateak abian jarritako elikagai bankuarekin. Ekimenari bultzada bat emateko asmoz, diru bilketa bat egin zuten bazkailondoan, beharrea daudenei laguntzeko. Denera, 1.330,11 euro bildu zituzten. Batzordeak, eskerrak eman nahi dizkie laguntza eskaini zuten guztiei.

Jalisko Bandekin dantzan gustora bukatu zuten ospakizuna.

Benidormera bidaia

Irailaren 27an abiatu ziren eta urriaren 9ra arte, Benidorm aldean ibili ziren elkarteak 105 bazkide. Fenicia eta Briston hoteletan ostatu hartu eta eguraldi bikaina lagun, ederki pasatzeko aukera izan zuten. Tartean Mairu eta Kristauen desfile famatua ikusteko aukera ere izan zuten. Bertze hiru bidaia daude aurreikusita eta izen ematepeak bukatu dira. Hala, Lodosara 138 pertsona joango dira, Kanariar Uharteetara 29 eta Machu Picchura 12.

Ikastaroak

Azken hiruhilabete-ko ikastaroak antolatuta dituzte eta urte osoan



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak omenduak goiko argazkian, Santiago Bidean erdiko bietan eta Benidormen, behekoan.

bezalaxe denetarako aukera izanen da. Informatikako ikastaroa izan da arrakastatsuen, 31 pertsonak eman dute izena bertan. Frantse- sa ikasten berriz 18 bazkide ariko dira, kimaketa eta txertaketa ikastaroa 14 bazkidek eginen dute eta sendabelarrena 11k. Memoria tailerrean 9k eman dute izena, psikoterapia ikastaroan 5 lagunek eta photoshop ikastaroan bertze bortzek.



GIZARTEA → LEHEN BI ASTEETAN AMAIURREN IZAN DA

Frigoliburutegi ibiltaria herriz herri ibiliko da ikasturte honetan

Irakurzaletasuna sustatzeaz gain hondakinak murriztea du helburu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Zaborren Batzordeak herrietako ikastetxe eta alkateekin elkarlanean "frigoliburutegi ibiltaria" egitasmoa martxan paratu berri du. Egitasmoak ikasturte bateko iraupena izanen du, guti goiti-beheiti, eta helburu nagusiak berrerabilpena eta prebentzioa izanen ditu, halaber, gure liburuak elkartrukatzu

hauen biziraupena luzatu eta bide batez, hondakinak murriztea, hain zuzen.

Horretarako, hondaturik dagoen hozkailu bat berreskuratu eta erabilpen berria ematea da asmoa, denboraldi batez liburuak elkartrukerako balioko duen liburutegi bihurtuz. Horrela irakurzaletasunari bultzada emateaz gain, etxean lekua betetzen eta hautsa hartzen ari diren liburuei bertze aukera bat emanen diete. «Guk gaurgero behar ez ditugun, irakurriak ditugun edota gustuko ez ditugun liburuak segur aski bertze norbaiten



UTZITAKO ARGAZKIA

Frigoliburutegia, Amaiurko eskolan.

gustukoak izan daitezkeela eta beste batena gure gustukoak. Beraz, etxean zahartzen utzi edota zaborretara bota ordez, hauen berrerabilpena bultzatzeko proposamena» luzatu du Baztango Udalak.

Joan den urtean Nafarroako Gobernuak eta Ingurumen Baliabide Zentruak bultzaturiko ekimen baten bitartez, "frigoliburutegia" Balleko Etxeko atean eta Udal Liburutegian egon

zen eta aurten Udalak berriz kaleratzea pentsatu du liburuak elkartrukatzeko aukera Baztan osoko herritarrei zabalduz. Horretarako ikastetxeak erreferentzi puntu ezin hobekak diren, eskola duten herrietan "frigoliburutegi ibiltaria" eskolen bitartez bideratuko da, eskolako atean paratuz eta herritar guztiei parte hartzeko aukera zabalduz. Eskolarik gabeko Baztango herrietan al-

diz, egitasmoa alkate eta herritarren bitartez bideratzeko asmoa du Udalak.

Lehendabiziko bi asteetan, "Frigoliburutegi ibiltaria" Amaiurren hasi du bere ibilbidea harrera arras onarekin eta ekainera bitarte Baztan osoko herrietan barrena ibiliko da, herri bakoitzean bi aste emanen eta haur, gazte eta helduen liburuak herri batetik bertzerara garraiatuz.

MARGO ERAKUSKETA
JAVIER ARRIETA
ARIZKUNENEA KULTUR ETXEA
Urriaren 31tik azaroaren 17ra
Astelehenetik larunbatera:
18:00-21:00
Igande eta besta egunak:
11:00-13:30

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

ARMUA JATETXEA

T. 948 509 131
Zugarmenurikotik errep. 3. km
UPICAZUE

GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA

ttipi barfela
%50eko DESKONTUA
matrikulan
Baldintza: urte oso baterako bazkide izatea

MENDI ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

BAZTAN

KULTURA → URRIAREN 14AN AURKEZTU ZUTEN

Baztango Mintzoa idatziz nahiz ahoz ongi erabiltzeko gida argitaratu du Udalak

Maite Lakarrek osatu du eta paperezko euskarrian ez ezik euskarri digitalean ere zabalduko da

TTIPI-TTAPA

Baztango mintzoa erabiltzeko gida aurkeztu zuen urriaren 14an Udalak. Gida-liburuxka hau Baztango euskara, ahoz nahiz idatziz, ongi erabiltzen laguntzeko prestatu duten eskuliburu da. Izan ere, egunerokoan mintzatzean ibili ohi ditugun hainbat solas idazteko orduan baztertzen ditugu egokiak ez direlakoan eta horien ordezkariak zabalagoa duten (baina ez gureak baino zuzenagoak diren) bertze batzuk ibiltzera jotzen dugu.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Xabier Zabaleta irakaslea, Maite Lakar egilea eta Maitane Maritorea zinegotzia aurkezpenean.

Baztango mintzamoldea erabiltzeko gida erabilgarri honek bi helburu nagusi ditu: baztandarrei beren mintzamoldea, solasean nahiz idaztean, erabil dezaten segurtasuna ematea eta baztandarrak ez direnei hemengo euskararen

ezaugarriak ezagutu eta balio esteko bidea ematea, beraiek ere erabiltzeari ekin diezaioten.

Baztango mintzoa erabiltzeko gida Udalerriko eskoletako maisu-maistrendako eta institutu etako irakasleentzako bereziki pentsatuta

dago baina horiendako ez ezik Udal zerbitzuetako langileentzako eta gure eskualdean jarduten duten hedabideetako erratari edo erredaktoreentzako ere erabilgarria izan daiteke. Funtsean, Baztanen aritzen den eta hemengo eus-

kara ongi erabili nahi duen orori gerta dakioko baliagarria.

Argitalpena paperezko euskarrian eta euskarri digitalean zabalduko da. Inprimatutako aleak udalerriko ikastetxeetan, udal zerbitzuetan eta hedabideetan partituko dira. Banaketaren helburua ez da ikasle, irakasle eta langile orok gidaren bere alea izatea, ikasgela, mintegi, administrazio edo zerbitzu atal bakoitzean liburuxka bat bederen egotea baizik. Inprimatutako aleren bat gehiago behar izanez gero, Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan eskatzen ahal da (telefonoz: 948 580 006; e-postaz: euskara@basztangoudala.eu).

Euskarri digitaleko dokumentua Baztango Udalaren webgunean www.basztangoudala.eu dago eskuragai.

ABELZAINZA → 784 BEHI, 369 BEHOR ETA 1.482 ARDI BURU SARTU DITUZTE UDAN

Herri-bazkalekuetan inoiz baino azienda gehiago ibili da

154 nekazarik erabili dituzte Erdiz, Belate eta Lizartzuko eremuak

TTIPI-TTAPA

Aurten inoiz baino azienda buru gehiago sartu da Erdiz, Belate eta Lizartzuko herri-bazkalekuetan. Denera 154 nekazarik 784 behi, 369 behor eta 1.482 ardi buru sartu dituzte. Iaz he-

rri-bazkalekuak erabili zituzten baserritarrek 140 izan ziren eta 719 behi, 403 behor eta 1.419 ardi buru sartu zituzten.

Datuak xeheago emanik, aipagarria da aurten Erdizko bazkalekuak ia 100 nekazarik erabili dutela, aitzineko urtean 91 izan ziren; modu horretan, udan denekora 500 behi buru pasa egon dira Erdizko larreetan; 2012an 487. Belaten, datuak iazko antze-

koak izan dira eta Lizartzun hazkundera nabarmena izan da: aurten 24 nekazarik 73 behi, 126 behor eta 232 ardi buru sartu dituzte eta iaz 15 baserritarrek 27 behi, 104 behor eta 220 ardi buru sartu zituzten.

LARREAK MINERALEZ ABERASTUAK

Bistakoa denez, herri-bazkalekuak Baztango nekazariendako oinarrizko baliabideak dira eta funtzio produkti-

bo garbia dute. Gisa horretan, herri-bazkalekuen garrantzia kontuan hartuta Udalak larreak mineralez aberasteko eta iskindegiak errepasatzeko aurten 25.000 euro inbertitu ditu. Bertalde, iaz Lizartzuko iskindegi guztia berritu zen eta 3 bazkalekuetan 20 hektarea inguru desbrozatu ziren.

Aurten bazkalekuak ibiltzen dituzten baserritarrekin udalak 4 bilera egin ditu eta minera-

la aldatzea (oraingoa ekologikoa da), behiekin batean bazkalekuetan 6 zezen ere sartzea eta seinale desberdinak jartzea adostu zuten.

Erdizen eta Belaten udako denboraldiak ekainaren 1etik irailaren 21era arte irauten du; ondotik zaldi-behorrak eta ardiak sartzen dituzte. Lizartzun berriz maiatzaren 15etik martxoaren 15era arte luzatzen da denboraldia.

OSPAKIZUNAK → JO ALA JO ELKARTEAK ANTOLATUA

XIV. Kirikoketa besta larunbatean eginen da Arizkunen

Gamioko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia eginen da

dogintza erakustaldia ere eginen da.

Larunbat goizeko 10:30etik aitzinera eginen da sagardogintza erakustaldia. Gamioko eta bestako sagardo eta zukuen dastaketa ere eginen dute. Segidan bazkari herrikoia izanen da. Ospakizunean, herri musikariak eta dantzak, erraldoiak, taloak, artisauiak, Bidasoaldeko hazien sarea, kontzertuak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira.

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo kultur taldeak hamalagarren urtez antolatutako Kirikoketa Besta Arizkunen ospatuko dute azaroaren 2an. Egun osoko ekitaldiekin batera, XVIII. mendeko Gamioko dolare barrokoan sagar-



TESTUA ETA ARGAZKIA: GARTZAINGO ESKOLA

Jorge De Vicente txirindulari abentureroa Gartzaingo eskolan

Gartzaingo ikasleek bisita berezia jaso zuten irailaren 27an. Jorge de Vicente, zaragozako mutil gaztea, bere bizipenak eta proiektuak azaltzera joan zen eskolara. Jorgek, duela urte batzuk, gaixotasun larri bat izan zuen. Horren ondorioz, ibilbide solidario batzuk antolatzea erabaki zuen. Ibilbide hauen helburua, bizikletaz ibiliz, minbizia duten haurrentzako dirua lortzea da (gaixotasun honek eragiten dituen beharrei aurre egin ahal izateko). Bi itzuli eginak ditu gaurgero: Santiago bidea (Erromatik hasi eta Zaragozaraino: 15 egunetan) eta bigarren bat, Laponiatik abiatuta Aragoiko hiribururaino (32 egunetan). Gainera, Jorgek eta bere lagun batek, jendearen ekarpenak jasotzeko "Day by Day" izeneko elkarte bat sortu dute. Datorren urtean, Europako hiru mendi nagusiak zeharkatzeko intentzioa du eta berriz ere Gartzaindik pasako da.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 19AN OSPATU ZEN

Infernuko Errotatik Urdazubikora joan da Erroten Eguneko lekukoa

Irigoiengo Bordatik eta Etxalartik hurbildu ziren partehartzaileak

ko bestarako lekukoa, berriz, Urdazubikoak hartu du.

Partehartzaileak auzotz eta oinez hurbildu ziren Etxalartik eta Irigoengo bordatik eta Argarate familiak zaharberitutako Infernuko Errota ikusteko aukera izan zuten. Arizkungo Patxi Larralde txistulariak eta Xabier Durruty atabalariak paratu zuten musika giroa eta Joxemari Argaratek

TTIPI-TTAPA

Erroten Eguna ospatu zuten urriaren 19an Infernuko Errotan, beharbada gure inguruan dagoen errotarik berezienean eta ezkutukoen. Heldu den urte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubiko alkateak Etxebertzeko Bordako Mikel Argarateren eskutik hartu zuen lekukoa.

azaldu zuen Infernuko Errotaren zaharberritze prozesua. Gero, Etxebertzeko Bordan, Argaratek berak eta Maria Mitxelenak prestatutako taloak dastatzeko aukera izan zen.

Ekitaldia akitzeko, heldu den urterako Errota Egunaren lekukoa jasotzeko Bordan, Argaratek berak eta Maria Mitxelenak prestatutako taloak dastatzeko aukeratik, Mikel Ortega

Baztango udal zinegotzia eta Bertizko Partzuergo Turistikoko Izaskun Goñi lekuko zirela. Beraz, heldu den urtean Urdazubiko Errotan ospatuko da Errotaren Eguna.

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → TURISMOA

Alex de la Iglesiaren filmak hegoaldetik datorren turismoa berpiztu du

‘Las brujas de Zugarramurdi’ pelikulako lekuengatik galdezka etortzen dira bisitari batzuk

rrean grabatutako eszena); bertze batzuk Zugarramurdi toki imaginario bat zela uste omen zuten, eta hara non eta pelikulatik jakin zuten egiazko herri bat dela; badaude ere pelikula ikusi eta biharamunean berean etorri direnak...

Margari eta Koreo

Badirudi Alex de la Iglesiaren “Las brujas de Zugarramurdi” pelikulak herriko turismoari bultzada eman diola.

Sasoin huntan, batez ere iparralde aldekoak izaten ditugu bisitariak, baina aurten sumatzen ari da hegoaldeetik ere jende gehiago hurbiltzen ari dela.

Agerikoa da horietako batzuk pelikula ikusi ondotik etorri direla: batzuk “Bar Maritxu”z galdetu zuten (Sartza -

Udazkeneko uzta exkaxa

Udazkeneko kontuetan, aipatzekoa da sasoi huntako uztak exkaxak ari direla izaten: gaztain eta geltxaur gutti bildu dira, eta gainera franko ttikiak. Onddoak berriz, irail erdi aldera zerbait bildu ziren, baina geroztik deus ere ez; eta iralekuetan ere, usaian baino franko iratze-rulo guttiago egin dira. Ea zer datorren datozen hilabeteetan!



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

“Loba” izeneko grabaketan parte hartu du antzerki taldeak. Grabaketa gauetz egin zen, Sarako santinazeko mendian, eta esperientzia polita izan omen zen.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ALIZIA OLAIZOLA

Kalabaza ederrak Urdazubiko Landibar auzoko Aroztegian

Kalabaza ederrak bildu dituzte aurtengo udazkenean Landibar auzoko Aroztegia baratzean. Hementxe horietako haundienetarikoa bat, 58,5 kilokoa, Paul eta Pablo aita-semeak bien artean erakusten digutena.

JATETKEA-ERBETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinetatik
 2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bere (Administratiboa) 31700 BERRA
 Berriztatzea 31712 URDAK
 Berriztatzea 31700 BERRA
 Lurralde 31000 LIZADON

VENTA PEIO Landibar

HERIOTZA → ORTESEKO ERRETOR IZAN ZEN

Pierre Dokhelar elizgizona azken egoitzarat segitua izan da

Ferroeroenean sortua, harreman estua zuen Arretxea kolegioarekin

Franck DOLOSOR

Pierre Dokhelar 80 urtetan pausatu da berriki Kanbon Alzheimer eritasuna jasan ondoren. Senpertar hau biziki ezaguna zen Baionako eliz barrutiko irakas-kuntza katolikoko zuzendaria izan baitzen urteetan. Filosofia irakaslea izan zen Uztaritze, Baiona eta Madagaskarren. 1990 eta 2002 urte artean Orteseko erretor izan zen eta biarneseekin biziki ongi moldatzen zela oroit dira hango herritarrak. Protestanteekin hurbilketak egiten ere entseatu zen. Pierre Dokhelar zenak idatzi frango uzten du. Harreman estua zuen Arretxea Senpereko kolegioarekin, halabainan Ferroeroenea bere sortetxearen aintzinean dago ikastegi hau bi urratsetan. Errotik euskalduna eta denari idekia den zerbitzuko izanez, hau da Pierre herritarraren bizian laburpena. Paxkal bere ilobak lekukoa hartu du Euskal Haziak Ipar Euskal Herriko sare elebidun katolikoen arduraduna izanez.

Doluminak Dokhelar familiari eta bere hurbilekoei.

Arretxean elkartasuna beti

Arretxea kolegioak elkartasunezko ekintzak egiten ditu maiz eta berriki bertako ikasleek ELA operazioan parte hartu dute eri diren haurrak laguntzeko. Laugarren eta hirugarren mailako ikasleek bi kirolariren laguntza izan dute, Battitt Ducassou pilotaria eta Pepito Elhorga rugbilariarena.

Appel Détresse beti lanean

Azkaine eta Senpere aldean 45 lagun biltzen dira Appel Détresse elkartearen inguruan munduko behartsuak laguntzeko. Berriki, Joseph Orain Frantzia osoko zuzendariaren bisita izan dute proiektu berriak finkatzeko. 6.000 euro bildu behar dituzte jantoki bat eraikitzeko Haitin. Josteko makinak, parafarmazia produktuak, eskolako edo sukaldeko tresnak ere biltzen dituzte harat igortzeko. Euskal Herriko elkarteak 1988an sortu zen eta aurren bi kamiun jantziz eta janariz beteta igorri dituzte Nantes hirirat gero horrek banatuak izateko Madagaskar, Haiti, Togo eta



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Appel Détresse elkartearen inguruko informazioa eman zuen Joseph Orain, Frantzia osoko zuzendariak (beheko argazkian).

Senegal bezalako herrialdeetarako. Appel Détresse elkarteak jantzi merke saltzea egiten du ortzegun guziz eta larunbat goizetan Reketenean Ibarrun auzoan.

Ur gune berria INRA erakundearen

Aquapole izeneko gune berria inauguratu dute berriki INRA erakundearen Ibarrunen. Milion bat eta erdiko inbertsioa egin da, erdia Akitaniako lurralde kontseiluak ordaindu duelarik, arrainen, erreken eta itsasoaren inguruan ikerketak egiteko. Akuakultura lehenesten ari da planeta asetzeko ondoko urteetan. Senpereko laborategian alternatiba jasagarriak miazten dituzte. Denera, 70 lagunek lan egiten dute hor, batzuk Portugal, India edo Txinatik etorriak. Izokina, amuarraina eta aingiraren inguruan ari dira lanean bertan. Bertzalde, Ecobiop INRAren ikerketa adarrak lankidetzak hitzarmena sinatu du duela guti Akitaniako abereen behategiarekin informazio biltzeko hobetzeko.



EUSKARA

Senpert'har hitzaren lehen edizioa egin da Oiartzuna gelan

TTIPI-TTAPA

Senpert'har hitzaren lehen edizioa egin zen urriaren 25ean Oiartzuna gelan. Taldeka, euskaraz, aktualitateari buruzko sei gaietaz (Patatatik Siriara, euskaraz zeharkatu) mintzatzeko aukera izan zuten Senpereko Euskaraz Bai taldeak bultzatzen duen ekimen honetan. Hamar minutuko txandak egin zituzten gai bakoitzeko eta ondorengoan, mahaiz mugitu ziren partehartzaileak, ahalik eta pertsona gehienekin hitz egitea bilatuz. Izan ere, ekimen honen helburu nagusia euskaldunak elkartzea da, «gaur egun euskarak nagusiki behar duena erabilera delako».

SARA

KULTURA → AZAROAREN 2AN

Eresoinka talde folklorikoari buruzko mintzaldia emanen dute

Philippe Regnier-ek eramanen du Lur Berri gelan gaueko 9etan

Joana GERENDIAIN

Azaroaren 2an, gaueko 9etan Eresoinka taldeari buruzko mintzaldia antolatu dute Lur Berri gelan. Hizlaria Philippe Regnier izanen da. Eresoinka 1937an Eusko Jaurlaritzak sortutako talde folklorikoa zen, gizon eta emazte osatua. Talde hortan euskal dantzak, musika eta kantua

nahasten ziren. Mundu mailako arrakasta izan zuen, han eta hemen emanaldiak eskainiz. Sarrerak 2 euroko kostua izanen du.

Ikusgarria

Azaroaren 3 eta 6an EliralE konpainiak bere ikusgarri berria emanen du Lur Berri gelan. Ikusgarria *Kadira* deitzen da eta *La chaise bleue* haurrentzako liburua hartzen du oinarrian. Pantxika Teilleriak liburua izpiritua atxikitzen du Baztango joko dantzak sarraraziz.

Tokiak erreserbatzen ahal dira 06.35.16.25.91



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

Usoaren Kofradiak bere eguna ospatu zuen urriaren 20an

Sarako Usoaren Kofradiak ohorezko kide berriak izendatu zituen urriaren 20an Larunen. Tren Ttikian igo ziren 40 bat kofradiako kideak. Gero, Omordian bildu ziren bazkaltzera 150 bat lagun, giro ederrean.

ra deituz. Sartzea helduentzat 8 euro eta haurrentzat 5 euro.

Uso besta

Uso besta azaroaren 3an ospatuko da. Goizeko 11etan pilota partida bat izanen da plazan, eta nahi dutenek usategiak bisitatzeko aukera izanen dute. Egurditan plazan dantza ikusgarri bat emanen da, ondotik ostaltuetan usoa jatea eta arratsaldeko 5etan kantaldia antolatu dute.

Kirol emaitzak

Urriaren 12 an esku baloiko taldeak etxean jokatu zuten. Seniorrek Paueko ekiparen kontra irabazi zuten 21-14. 11 urte baino guttiagokoek Baionaren kontra 14-22 galdu zuten; 15 urte baino guttiagokoek Senpereren kontra galdu zuten 20-4; 18 urte baino guttiagokoek Urruñaren kontra galdu zuten 20-18.

Urriaren 20 an basurdeak Azkainen jokatu zuten eta bi ekipek gal-

du zuten: 14-7 erreserbak eta 16-9 lehenengo taldeak.

Bertso afaria azaroaren 16an

Olhain ikastolak eta Sarako gaztetxeak bertso afaria antolatu dute azaroaren 16an Lur berri gelan. Gualdia kantaldi batekin hasiko da, sartzea 5 eurotan izanen da eta afarirako txartela dutenentzat kitorik. Afarirako txartelak aurrez jarriko dituzte salgai 20 eurotan.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

kukuka
LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA
17:00tik 19:00ra

Zapagarutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

Rekordatorioak egiten
ditugu

Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Hoskuntoko b. 7 | LESAKA | 948 635 458

EZKONTZAK

Igor Portu Juanena eta Ilargi Iraizoz Ziarra, Lesaka eta Iruñekoa, urriaren 14an Kordoban.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Ekain Landa Ortuozte, Doneztebekoa, urriaren 15ean.
Aiala Landa Ortuozte, Doneztebekoa, urriaren 15ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Martin Subizar Mitxeo, Legasakoa, urriaren 16an, 78 urte.
Ignacio Ariztegi Legazkue, Iturengoa, urriaren 9an, 84 urte.
Manuel PizzioMartin, Berakoa, urriaren 13an, 76 urte.
Carmen Leiza Olasagasti, Lesakakoa, urriaren 3an.
Mari Luz Irigoien Etxeberria, Lesakakoa, urriaren 16an, 80 urte.
Bernardo Sokobehere Bidondo, Arizkungoa, urriaren 18an, 86 urte.
Juan Arzuaga Saldias, Urrozkoa, urriaren 21ean, 87 urte.
Patxi Biurrarena Bereau, Leitzakoa, urriaren 22an, 88 urte.
Aitor Karrikaburu Saharrea, Narbar-tekoa, urriaren 21ean, 32 urte.



Saioa TELLETXEA ZUBELDIA

Igantzin, 2013ko irailaren 17an

Gure ondotik joan zara gure barnetik ez zurekin hainbertze irri zurekin hainbertze solas zuk emandako guztia gurekin geldituko da. Aio ez, betirako Saioa.

DONEZTEBEKO OTEIZA AUZOKOAK



Joxean HERNANDEZ ALTUNA

Lesaka-Beran, 2013ko urriaren 9an

Momentutxo batean bizitzak ze bira istripuak maizegi gertatu ohi dira nahiz gogoratu zure begien dizdira Joxean, zu gabe, mina handitzen ari da Baina segiko dugu aurrera begira.

ZURE LESAKAKO ETA BERAKO FAMILIA:
Josemari, Kontxita, Rakel, Jaxinto, Adela, Basilio, Irati, Julen, Ekhiñe, Iraia eta Axuri.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

VIII. URTEURRENA

Eman zenuen bizia euskaragatik, herriarengatik, Euskal Herriagatik, eta azken bederatzi hilabeteetan familia eta lagunei eman zenien bizia, joan arte.

ETXEOAK

PILOTA → ERREMONTEA

Juanenea eta San Miguelek irabazi dute Nafarroako txapelketa

40-35 irabazi zieten finalean Urtasun eta Barrenetxeari

TTIPI-TTAPA

Aritz Juanenea saldiastarrak eta Julen San Miguel doneztebarrak irabazi dute VIII. Nafarroako Erremonte txapelketa-Magna Sari Nagusia. Zubiriko pilotalekuan urriaren 13an jo-

katutako final gogorrean 40-35 irabazi zieten Gorka Urtasun iruritarri eta Barrenetxea IV.ari.

Saldiastrarra eta doneztebarra ziren faborito baina lana gogotik egin behar izan zuten txapela janzteko. Izan ere, 0-8 galtzen hasi ziren eta hamazazpina berdindu arte gibeletik joan ziren markagailuan. Urtasun eta Barrenetxeak bikote ederra



UTZITAKO ARGAZKIA

Aritz Juaneneak Julen San Miguelekin irabazi du profesioaletako bere lehen txapela.

osutzen dute eta lanean segitu zuten, berriz ere markagailuan aitzinetik paratuz (19-22, 23-26...). Partidaren erdialdera hainbat berdinketa izan dira, baina hogeita bederatzina berdindu ondotik aurrea

hartu zuten gorriek (32-29). Halere, berriz ere 33na berdindu zuten. Horixe izan zen azken berdinketa eta azkenean, partida osoan lortu zuten alderik handiena lortu zuten txapeldunek, 40-35.

Juanenearentzat lehen final handia zen eta urduritasun hori somatu zitzaion partida hasieran. San Miguelek, berriz, partida bikaina jokatu zuen eta partidari eutsi zion lehen zatian.

PILOTA → ERREMONTEA

Otaegik eta Patxi Olazar bikain batek irabazi dute Promozio txapelketa

31-40 irabazi zieten finalean Etxabe II eta Labakari

TTIPI-TTAPA

Otaegik eta Patxi Olazar doneztebarrak irabazi dute erremonte-promozio txapelketa. Urriaren 19an Galaretan jokatuak finalean 31-40 irabazi zieten Etxabe II eta Labakari.

Hasiera hasieratik nagusi izan ziren urdinak eta merezimenduz eraman zuten txapela. Patxi Olazarrek partida bikaina jokatu zuen eta bere esperientzia nabarmendu zuen norge-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Otaegi eta Patxi Olazar txapeldunak, azpitxapeldun eta antolatzaileekin podiumean.

hiagoka menpean edukitzeke. Gorriak beti gibeletik izan ziren markagailuan, baina 18-20koa bitarte ez zuten

aldea sobera handitzen utzi (10-15ekoa izan zen tarterik handiena). Partida erditik aitzinera alde hori handitu eta azke-

nean 31-40koarekin nagusitu ziren Otaegi eta Olazar. Txapelketako partida guziak irabazi zituen bikote honek.

ESKUZ BINAKA

Malerrekako txapelketan izen emateko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

Hamabigarren aldiz Malerrekako Eskuz Binakako Pilota Txapelketa antolatu du Erreka Kiroi Elkarteak. Txapelketa urtarillaren erdialdera hasiko bada ere, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea eta azaroaren 17ra arte egonen da irekia. Apuntatu nahi duenak posta elektronikoz egin behar du salaae@gmail.com helbidera mezua bidalitzeko edo bertzela, izena emateko orrian, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa apuntatuz. Zazpi kategoriatan jokatu da.

HERRI KIROLA → AZAROAREN 2AN

Elizondon abiatuko da Nafarroako sokatira txapelketa

Azken saioa berriz Lesakan jokatu da azaroaren 23an

TTIPI-TTAPA

Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketa azaroaren 2an, igandean abiatuko da Elizondon 18:00etan hasiko den lehen jardunaldiarekin. Lau kategoriaz ezberdinetan erabakiko dira txapelak. Gizonetakoak zortzinaka ariko dira 640 kilo eta 600 kiloko kategoriatan. Berriozar, Txantrea eta Amaiur ariko dira. Emakumezkoen seikoteak 375 kiloko kategorian ariko dira. Berriozar, Txantrea eta Basaburua-Imotz izanen dira lehakide. Talde mistoak,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiurko taldea izanen da aurreko ordezkaririk bakarra txapelketan.

azkenik, zortzinaka ariko dira 550 kiloko kategorian. Berriozar A eta B, Txantrea eta Basaburua-Imotz ariko dira.

Elizondoko saioan, gizonetakoak 640 kilo-

ko eta emakumezkoen txapelketako lehen jardunaldia jokatu dute eta azaroaren 9an egiten dute bigarren eta azkena, zehaztu gabeko lekuan. 600 kiloko gi-

zonezkoak eta talde mistoak azaroaren 16an hasiko dira (tokia zehazteke) eta azaroaren 23an jokatu dute Lesakan bigarren eta azken jardunaldia.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ttikienak jokoan, lehenbiziko jardunaldian.

PILOTA

47 bikotek hasi dute XIII. Bortzirietako eskuz binakako txapelketa

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz binakako XIII. pilota txapelketa urriaren 18an abiatu zen. 47 bikote ari dira lehen eta gehienak bortz herrietakoak badira ere, Baztan, Malerreka, Oiartzun, Hondarribi, Irun, Ultzama eta Lapurditik etorritako pilotariak ere ari dira. Zuzenbidean, abenduaren 14an jokatu dituzte finalak Berako Eztegarra pilotalekuan. Partidak Bortzirietako pilotalekuan jokatzen dituzte, bederatzik kategoriatan banatuak: ttikiak, umeak B, umeak A, kimuak B, kimuak A, haurrak, kadeteak eta jubenilen B eta A mailak. Beran, larunbat edo igande goizeko 09:30etik aitzinera; Lesakan larunbat goizeko 09:30etik aitzinera; Igantzin ortziral arratsaldeko 6:00etan; Arantzan larunbat goizeko 10:00etan eta Etxalarren igandeetan goizeko 10:30ean.

HERRI KIROLAK → AIZKORA

Euskal Herriko final nagusian ere izanen da Jon Rekondo leitzarra

Nazabal, Otaño, Azurmendi, Atutxa II eta Olasagastirekin batera ariko da abenduaren 8an Elgoibarren

TTIPI-TTAPA

Urriaren 12an jokatutako Altsasun Euskal

Herriko lehen mailako aizkora kanporaketa. 11 aizkolari aritu ziren lehen, Joseba Otaegik ezin izan baitzuen parte hartu lesionatuta dagoelako. 54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako bina enbor moztu behar izan zituzten. Floren Nazabal izan zen onena eta berekin batera, Unai Otañok, Iñaki Azurmendik, Jon Rekondok, Aitzol Atutxak eta Joxe Mari Olasagastik lortu

dute abenduaren 8an Elgoibarren jokatu den finalerako txartela. Orduan, lan bikoitza izanen dute. Ander Erasun aurtiztarra bederatzigarren izan zen, beraz, ez da finalean sartu baina maila mantenduko du.

Luis Txapartegi bigarren mailara jausteko da 2014an eta Antonio Senosiainek Joseba Otaegirekin ez jausteko kanporaketa jokatzeko aukera izanen du.

SAILKAPENA

1	Nazabal	16'11"
2	Otaño	16'48"
3	Azurmendi	17'27"
4	J. Rekondo	18'17"
5	Atutxa	18'32"
6	Olasagasti	18'47"
7	Irazu	19'02"
8	Mujika	19'30"
9	A. Erasun	19'47"
10	A. Senosiain	20'22"
11	Txapartegi	21'29"

urriak 31 - azaroak 14

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Antzerkiak	Feriak	Bestak
 <p>BERA 2013.11.01-08-16 XV. Berako Kafe Antzerki Zikloa azaroaren 1, 8 eta 16an</p> <p>Hiru antzezlan Kafe Antzerki Zikloaren barne: azaroaren 1ean <i>Euskararen Espektakulue</i>, hilaren 8an <i>Balitzen hioa</i> eta 16an <i>Lingua Nabajorum</i>.</p>	 <p>DONEZTEBE 2013.11.15 Udazkeneko Ferietan hurrengoak Donezteben</p> <p>Doneztebeko ferien barne, goizean, aziendak, nekazaritzako tresnak, merkatarien produktuak... izanen dira. Eta eguna borobiltzeko arratsaldean herri kirol jaialdia.</p>	 <p>AURTITZ-ARANO 2013.11.07-11 Sanmartinak joka ditugu Aurtitzen eta Aranon</p> <p>Aurtitzen azaroaren 7tik 11ra hainbat ekitaldi izanen dituzte, eta Aranon azaroaren 9an ospatuko dituzte sanmartinak. Xehetasunak 24. eta 28. orrialdeetan.</p>

Erakusketak

BERTIZ

Diana Iniestaren lanak

Azaroaren 3ra arte *La presencia de lo no dicho* monotipo, margo eta eskultura erakusketak Natur Parkean, egunero, 10:30-13:30 eta 16:00-18:00.

ARANTZA

Eskolako mendeurreneko argazkiak

Azaroaren 1ean eta 2an Zahar Txokoa. Ortziralean 11:00-13:00 eta larunbatean 19:30-21:00.

ELBETE

'Baztandarren Biltzarrak 50 urte'

Azaroaren 9ean 10ean argazki erakusketak, eskolan.

ELIZONDO

Jabier Arrietaren margoak

Azaroaren 17ra arte Arizkunenean. Astelehenean 18:00-21:00 eta igande eta besta egunetan 11:00-13:30.

Hitzaldiak

SARA

Eresoinka taldea**Azaroaren 2an**

Eresoinka taldeaz mintzaldia Philippe Regnier-ekin, 21:00etan Lur Berri gelan.

GOIZUETA

Jostailuen erakusketak eta hitzaldia

Azaroaren 9an 17:00etan.

Wukro-Etiopia hitzaldia

Azaroaren 8an 19:30ean.

Hitzaldi musikatua

Azaroaren 15ean euskal musikaren inguruan, 19:30ean.

Ikastaroak

ETXALAR

Marrakzi bizidunen tailerra

Azaroko asteazkenean Kultur Etxean.

Sukaldaritza ikastaroa

Azaroaren 8tik abenduaren 20ra Larraburu elkarteak.

GOIZUETA

Ume eramaile eta pixoihalen tailerra

Azaroaren 9an 10:30etan.

Arrain zopa egiteko ikastaroa**Azaroaren 9an**

11:00etan.

LESAKA

Sare sozialen inguruko trebakuntza saioa

Azaroaren 6an Matxinbeltzenean (17:00).

Antzerkiak

ARANTZA

'Patxila Lamur' antzezlanak

Azaroaren 2an 20:00 - etan eskolan.

BERA

Kafe Antzerki Zikloa

PROPOSAMENA

ARANTZA

XVIII. Baserritarren Eguna azaroaren 1ean

Ekaitza Elkarteak 18. Baserritarren Eguna antolatatu du azaroaren 1erako eta 10:00etatik aitzinera merkatua izanen da frontoian. Ez da asteburuko ekitaldi bakarra izanen. Egun horretan eta biharamunean, eskolaren mendeurreneko argazki erakusketak ikusgai izanen da Zahar Txokon, eta horrez gain, azaroaren 2an haurrendako filmak eta helduentzako antzerkia.



Azaroaren 1ean *Euskararen Espektakulue* lkuilu ostatuan (22:00).

Azaroaren 8an *Balitzen hioa* Lixioa ostatuan, 22:00etan.

Azaroaren 16an *Lingua Nabajorum* Kultur Etxean (22:00)

Kontzertuak

ITUREN

Ruper Ordorikaren kontzertua

Urriaren 31n Herriko Etxeko Ganbaran.

ZUBIETA

Urko Menaiaren kantaldia

Azaroaren 1ean Herriko Ostatuan (22:00).

BERA

Udazken kantu afaria Mendiko sagardotegian

Azaroaren 8an kantu afaria. Afalondoan kantuz: Bankako mendizaleak, mahainguruko taldea Santxotena akordeoilariarekin eta Guillermo Segurola txiste kontalaria. 21:00etan.

ELIZONDO

Folk Ametsetan Zikloa

Azaroaren 10ean Kalakan taldea Arizkunenean, 19:00etan.

Azaroaren 17an

La Banda Morisca taldea Arizkunenean, 19:00etan.

Azaroaren 24an

Matawa taldea Arizkunenean, 19:00etan.

Ospakizunak

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

ARIZKUN

XIV. Kirikoketa besta

Azaroaren 2an.

SARA

Uso besta

Azaroaren 3an.

GOIZUETA

Jubilatuaren eguna
Azaroaren 10ean.
Umore Onaren eguna
Azaroaren 16an.

Bertsoak

LESAKA
Bertso gaztain jatea
Azaroaren 2an Andoni Egaña eta Amets Arzallusekin.

ANIZ

Bertso afaria
Azaroaren 16an
Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin.

SARA

Bertso afaria
Azaroaren 16an.

Bestak

AURTITZ
Sanmartinak
Azaroaren 7tik 11ra.

ARANO

Sanmartinak
Azaroaren 9an.

Ferriak

DONEZTEBE
Udazkeneko ferriak
Azaroaren 15-16an.

Zinema

LEITZA

Film emanaldiak
Azaroaren 1ean eta 3an *El llanero solitario*.
Azaroaren 8an eta 10ean *La Caza*. Ostiralean 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

ARANTZA

Haurrentzako filmak
Azaroaren 2an
16:30ean, baskulan.

Lehiaketak

ARANO
'Paisaia megalitikoak'
Azaroaren 3ra arte aurkez daitezke argazkiak.


ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Maria Esperantza da, 1517an, Avilako Madrigalen, monasterio bateko abadesa. Aita santuaren gutun bat iritsi zaio gaur, Fernando Katolikoaren ezkontzaz kanpoko alabatza aitortuz. Gutun horretan, ordea, ez da aipatzen amaren izena zein den. Une horretatik aitzinera, erabat aldatuko da Maria Esperantzaren bizitza. Mundura ekarri zuen ama aurkitzea izanen du bere helburu bakarra. Haren oroitzapenik eta berririk ia batere gabe joanen da Bilbora, bere intuizioak eta behin ustekabearen entzundako sehaska-kanta batek piztu zizkioten sentimenduek gidaturik, abenturazko bidaia arriskuz betean. Poliki-poliki joanen da ikasten bere jaiotza nola izan zen. Ezagutuko ditu Juana Eroa deitzen zuten erregina gaixo hura, bere ahizperdia, eta bertze Juana bat, bera bezala sasikoa Gaztelako Kondestablearen emaztea; bertze anaierdi baten berri ere jakinen du: Alfontso Aragoiko erregeordea... Samin ki galdetuko du zergatik ukatu zitzaizkion berari amaren laztanak eta familiaren maitasuna.

Musika



Kora izeneko harpa afrikarra, perkusioa, ahotsa eta irudien ikus-entzunezko elkarriketa da *Enekora* izeneko lan hau. Eneko Larrañaga zestoarrak afrikar eta bere melodiak euskararekin nahasten ditu talde berezi honetan. Kontzertua proiektio bisual ederrekin indartzen den bidaia eder bat da: koraren melodia goxoak, perkusioaren bizitasunak eta ahotsaren emozioak eraginen dizkiguten sentsazioetan zehar. Txalapart ekoizpenaren zigilupean atera den *Kora Izpiak* diskoan, Eneko kora afrikarraren ikuspegi pertsonala eskaintzen du. Hamar kantuz osatu du lan berri hau: *Adouna*, *Sanu*, *Hegalaria*, *Mali Sadio*, *Djelia*, *Bidaia*, *Banoa*, *Salaman*, *Ikasten* eta *Khuyanduy* dira abestien izenak. Eneko Larrañaga bera da kora jo eta kantatzen duena, Mikel Aveirok eta Adrian Larrañagak perkusioa jotzen dute, Hanni Insaustik koroak egiten ditu eta Jon Manterola proiektio bisualetaz arduratu da.

Internet



Kalean da Elhuyar Hiztegiaren laugarren edizioa. Kazpi urte igaro dira lehendabiziko edizioa argitaratu zenetik, eta hamazazpi 1996an lehenak argia ikusi zuenetik. Hiru hiztegi ditu Elhuyarrek: Hiztegi Handia (91.000 sarrerarekin), Elhuyar Hiztegi Txikia (43.000 sarrera), eta Elhuyar Oinarriko Hiztegia (36.700 sarrera). Bakoitzak bere helburuak ditu, bere erabilzaileak, bere funtzioa. Hiruren edizio berriak batera argitaratu berri ditu Elhuyarrek. Baina horrez gain, Interneteko Elhuyar Hiztegia ere berritu dute eta hemen Elhuyar Hiztegiaren azken edizioa eta hiztegi elebidunak kontsultatzeko aukera dago. Hainbat berezitasun ditu Interneteko atariak: bilaketa egiterakoan, hitza bertze hizkuntzetara itzulia ageri da eta adibide batzuekin. Bilatu dugun hitzaren ahoskera entzuteko aukera ere badago. Hiztegiak sakeleko telefonoan kontsultatzeko modua ere badago, horretarako prestatutako bertsoak jaitziz gero. Eta berdin ordenagailuan.

Nire aukera



Aitor TELLETXEA
Arantzako gaztea

«Denbora librean zakurrak hartu eta mendira joatea gustatzen zait»

Oilargata ingurua da Aitorren Arantzako parajerik gustukoena, eta garai honetan aukera haundiak ditugu bera han aurkitzeko, ehiza ingurua delako Oilargata eta ehiza delako Aitorren «afizio nagusia». Azaldu digunez, ehiztari ona izateko sekretuak «pazientzia haundia eta egunero joatea» dira. Ez da ehiza bere afizio bakarra. Zaldian ibiltzea ere gustuko du eta «tarteka ateraldi batzuk egiten ditugu», dio. Mendia eta itsasoaren artean, mendia du maiteena eta denbora librean, «zakurrak hartu eta mendira joatea» gustatzen zaio. Bidaiazalea ere bada eta bisitatutako tokien artean, AEBetara joan zenekoa du gogoan: «Grand Canyon sekulakoa iruditu zitzaidan, eta Las Vegas ere ikusgarria da, ez da aunitz egotekoa, baina baikustekoa». Gustura ezagutuko lukeena, berriaz, Hego Amerika. Etxerantz itzultzean ez bada, baliteke ortzira leian Arantzaz eginen den Baserritarren Egunean ibiltzea, Ekaitza Elkarteko juntan baitago. Ez da harrizkoa izan, herriaren alde batean eta bertzean aritzen baita.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mobilizatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ELIZONDO. 75 m²ko pisua salgai Santiago Karrikan. Argitsua, bista ederrak. Berogailua, trastelekua eta igogailua. Prezio onean. ☎680 862616.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean 108m²ko pisua salgai. Sukaldea, egongela 2 logela, 2 bainugela, trastelekua eta 36m²ko terraza. Dena hegoalde-
ra. Prezio berria. ☎656 770373.

IRUÑEA. Azpillagaina auzoan, unibertsitatetik hagitz hurbil, atikoa salgai. Bista eta orientazio onak. Terrazarekin. Aukera ona. ☎661 847107.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ **GERO 10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXALAR. Borda bere lur eta obra baimenekin salgai. ☎661 121540.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ARRAIOZ. Etxebizitza unifamiliarra errentan emateko, erosteko aukerarekin. Lur eremua dauka. ☎609 973306.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA-BIDASOA. Pisu edo etxe tiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etik aitzinera).

LESAKA. Pisua errentan hartu nahi da. 350 euro ordaintzeko prest. ☎647 233690.

BERA edo **INGURUAN**

ekainetik urria pisu tiki edo apartamentua errentan hartu nahi da. Prezio onean. ☎948 348899.

ETXEBIZITZAK
konpartitu

IRUÑEA. Ensantxen, San Fermin kalean, pisua konpartitzeko neska bila. Pisua berogailuarekin eta igogailuarekin. ☎680 638994/ 948 580026.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Lur azpiko garaje itxia salgai Eltzeta plazan. ☎646 774117.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan hartzeko

LESAKA. 50 m² inguruko lokal bat errentan har-

tzeko behar da. ☎948 637050. (deitu bulego orduetan).

ZERBITZUAK
denetarik

ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUA
Merepeko pertsonen arreta eta zaintza:

- Pertsonen zainketa zerbitzuak
- Zainketa bereziki baxeko zerbitzuak
- Etxeko zerbitzuak
- Ospitalean eta etxean gauek
- Lanbide esperientzia egiaztatua

609 477 277

ROSA BELZUNGOI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordut

☎ 948 272011 (RUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2D - ELIZONDO

LANA
eskariak

Neska euskalduna lanean ariko litzateke: hau-

rrak zaintzen, ostalari-tzan... ☎948 637182.

LEITZA. Emakumezko bat haur edo adinekoak zaintzen, etxeak garbitzen... ariko litzateke. ☎948 510348 / 615 736185.

Bi mutiko koxkor dituen **emakumea lan bila** dabil. Zaintzan, garbiketan, lantegian, hiru, lau, bost, zortzi ordu... edozein aukera. Kotxea baduena eta segidan hasteko aukera ere bai. ☎655 720052.

ESKUALDEA. Interna bezala esperientzia duen emakumea berehala lanean hasteko prest dago, adinekoak zaintzen, etxea eramaten... ☎608 655199.

LANA

eskaintzak

BORTZIRIAK. Saltzailea behar da. Interesatuak bidali curriculum: iana.bortzirian@gmail.com.

MOTORRAK

saldu

Seat Leon fr1 salgai 2000cc, 170cv, 2008koa, 122.000 KM, hagitz egoera onean. Interesatuak deitu kompromisorik gabe, ikusi eta probatu eta hitz eginen da. 12.200. ☎608 252911.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 43 € (=)

Zerri gizena
1,383 € kilo. (-0,021)

Zerramak:
0,840€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,31
1.koa 4,05
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,09
2.koa 3,95

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00
idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,70/2,92
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,00/8,20
8-10 kilokoak: 6,70/7,40

Nissan Patrol GR salgai, 3 atekoa eta remolkerako bolarekin. ☎660 650528.

Karabana Fendt tfb 470 salgai. Ongi zaindua eta gutxi erabilia. 6.500 euro. ☎ 657 609811/634 800064.

Karnetik gabeko autoa salgai, Microcar Lyra, 1999koa, 52.000 KM, 2.200 euro. ☎948 450282.



ANIMALIAK

salgai

Hilabete eta erdiko Border Collie **zakurkumeak** salgai. Aita eta ama ardiekin lanean. ☎ 628 278825.



Monturako behar hezia salgai. ☎606 019337.

ANIMALIAK

oparitzeko

Bi **zakurkume** oparitzeko, bi hilabetekoak, pastor aleman eta golden arrazen nahasketak. ☎629 540549.



DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta hari -

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

CLIO II BUSINESS 1.5 DCI 85 CV 2009 urtekoa - 54.000 km	KANGOO EXPRESS CONFORT DCI 60 CV 2008 urtekoa - 52.800 km	MEGANE II AUTHENTIQUE 1.5 DCI 85 CV 2010 urtekoa - 66.500 km

ETA GAINERA:
KANGOO S.L. PROFESSIONAL
1.5 DCI 75 CV 2009 urtekoa
CLIO IV DYNAMIQUE DCI 90 CV - kilometro 0
MODUS CONFORT DYNAMIQUE
1.5 DCI 90 CV

KILOMETRO 0 etan
prezio ezin hobekak!!!!

ITURENGO UDALA

AURTIZKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Iturengo Udalak 2013ko urriaren 10ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikoa egitea, Iturengo Herriko Ostatuak taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitzaren errentamendua emateko, bertzeak bertze, baldintza hauei jarraikiz:

- Errentamenduaren iraupena: 5 urte, bertze 5 urte gehiago luzatzeko aukerarekin.
- Hileko errenta: 300,00 euro gehi BEZa. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2013ko azaroaren 6ko 14:00ak arte.
- Behin-behineko fidantza: 500,00 euro.

Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen esku dago udal idazkaritzan.

Ituren, 2013.10.23
Alkatea,
María José Bereau Baleztena

tza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Bi sofa urdin salgai. Ia erabili gabeak eta oso egoera onean. 70 euro. ☎646 853691.


Egoera oso onean dau-

den **bi altzari** salgai, egurrezkoak biak. ☎ 660 870536.



Gazteentzako ohea eta altzaria salgai. Egoera

eta prezio oso onean; ohea 105 cm eta 3 kajoi. ☎626 097128.



Arropa lehorgailua salgai. Bosch markakoa, 7 kiloko edukiera dauka. ☎633 045524.



Taka-taka eta gurgildun aulkia salgai. Aulkia aluminiozkoa da eta gurgilak desmuntatu litezke. ☎633 045524.



SUNBILLA
UDALA

UDAL PLAN OROKORRA / HASIERAKO ONESPENA

Sunbilla Udalak, 2013ko urriaren 5ean egin aperteko bilkuran, legeak eskatzen duen gehiengo zuela, erabaki hauek hartu zituen:

- 1.-Hasiera batean onestea Francisco Javier Chocarro San Martinek eta María Urmeneta Fernandezek egindako Sunbilla Udalaren Plan Orokorra, honako agiri hauek dituen: memoria, planoak, araudia, ordenantzak, katalogatutako eraikinen inventarioa, azterketa ekonomikoa eta finantzarioa, eta baita haren ingurumen ondorioen azterlana ere.
- 2.-Lizentziak ematearen etendura, Sunbilla udal mugaparen barnean determinazio berriek orain arte indarra izan duen hirigintzako araubidea aldatzen duten eremuetan; hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 69.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Hirigintza lizentzien etendura hori ez da gertatuko egin nahi diren obrak bi planeamenduen edukiekin bat heldu direnean, hau da, gaur egun indarra duenarekin eta hasiera batean onetsitako Udal Plan Orokorrekin.

Halaber, lizentzien etendura ez da aplikatuko hasierako onespena onetsi baino lehen hasiak ziren espedienteak badira; horrelakoei espedienteen hasi zen garaian indarra zuen araudia baik ez zaie aplikatuko.

- 3.-Sunbilla Udal Plan Orokorra eta ingurumen ondorioen azterlana, biak hasiera batean onetsiak, jendaurrean edukitzea hilabeteko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratuta, interesdunek, jendaurreko epe horretan, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.6 artikuluan eta Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat.
- 4.-Hasiera batean onetsitako Udal Plan Orokorra Sustapen Departamentura igortzea, txostena eman dezan bi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernu departamentu ezberdinen esku-menekoa gaiet buruz.
- 5.-Halaber, hasiera batean onetsitako Udal Plan Orokorra Maltzurkako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari igortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.7 artikuluan xedatuarekin bat.

Sunbilla, 2013.10.15
Alkatesa, Amets Inda Gorriaran

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Igantzikoko **GORKA OBESO INZA** etxeko nagusiak urteak bete ditu urriaren 12an. Auniz urtez attatto, muxu haundi haundi bat!



Zubietako **SARA SANTESTEBAN OTZANDORENAK** 7 urte bete ditu urriaren 4an. Zorionak eta 7 muxu potolo familiaren eta berexiki aita eta amaren partetik gure printzexa polittari.




Urriaren 24an Lesakako **ALAIN ETXEPARE AIESTARANEK** 3 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik!



JOANE SOLANO ANSALAS etxalarrak urtea beteko du azaroaren 1ean. Ongi pasa sorgin ttiki!! Besarkada eta muxu bat familiako partetik.



Leitzako **XABIER** eta **ANE LOTTEGIK** urteak bete eta beteko dituzte irailaren 1ean eta urriaren 31n. Urte askoz parejital! Zuen Leitzeko eta Hernaniko familiak egun ona igaro dezazuela desira dizue. Beti bezain alai jarrai ezazue! Txokolatzeko muxu potoloena zuentzat.



UNAI IRAZOKI AGIRREK urriaren 28an urte bat bete du. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.




Sunbillako **UXUE IBARRA MARIKURRENAK** urriaren 28an 6 urte bete ditu, zorionak! Txokolatzeko muxu handi bat lkerren partetik, eta mila muxu potolo atta, ama eta familia guztiaren partetik.



Iruñeko **AIMAR ETXEBERRIA IRIGOIENEK** 3 urte bete ditu urriaren 19an. Zorionak Doneztebeko ataxi, amatxi eta zure anaia Ugutzen partetik. Ez ahaztu kandelak ekartzaz guk hemen tarta zain edukiko dugu eta! Muxuak zakartzat!



Doneztebeko **MATTIN RETEGI AZPIROZEK** azaroaren 2an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa egun haundi hori zure aita, ama eta anaia Anderren partetik. Muxu pila bat Irurako eta Erantsungo familia guztiaren partetik.



Sunbillako **AIMAR MIGELTORENA MUGIKAK** urteak beteko ditu azaroaren 2an. Zorionak baserrikoen eta bereziki izeba Mari Jose eta Diegoren partetik.




Zorionak **JONE!** Ahal duzun hobekien pasa zure eguna! Muxu haundi bat Aresoko lagunaren partetik! Zure zain gaude! Zorte on politte!



Azaroaren 3an Arantzako **ARITZ IPARRAGIRRE ALBERDIK** 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat Arantzako eta Ourretako familiaren partetik!



Urrozko **IRAIA JUANENA BERTIZ** urriaren 28an urtea bete du. Zorionak amatxo, attatto, Beintza-Labaiengo familia eta bereziki Oierren partetik.



IRAIA JUANENA BERTIZ eta **JUNE JUANENA LARRAZAK** Juanenatar bikoteak urteak bete ditu urri bukaeran. Zorionak eta txokolatzeko muxuak Urrozko familiaren partetik bi sorgintxo hauei!!! Doneztebeko **JUNE JUANENA LARRAZAK** 3 urte bete ditu urriaren 25ean. Zorionak amatxo-attatto eta Doneztebeko familiaren partetik!



Lesakako **AIORA** eta **OLAIA GOIENETXE ZUBIETA** sorgin txiki hauek bi urte beteko dituzte urriaren 28an. Zorionak eta muxu pila bat familia guztiaren partetik sorgina pirulina hauentzat.



Goizuetako **IREBER INDAKOETXEA MENDIZURIK** bi urte beteko ditu datorren azaroaren 7an. Zorionak gure etxeko erregeari Goizueta, Hernani eta Usurbilgo familia osoaren partetik.

Baizto eredu izan zintezan, eskuzakal ta zuzena begi erretan biktuz osarra, gogoa eta bawena balma gaitz batez helduzak jarri, gaetan gaurik helduzena temelarik amarruna aldarazi zintuzena wahliz ta kartzelan bakardadeak, sakondo miza ta gona hizi ezina izan zintuzan tartoraren ondorena ibizi Zure lagunak

Kotto beti gurekin



NAHIA GOMEZ RIBEIROK urte bat beteko du azaroaren 18an. Zorionak eta muxu auniz ama, aita, amaxi, osaba, Argi, Rufus eta Noahren partetik.

EGUTEGIAK

Koloretan bi aldeetatik
8,5cmx5,5cm
300g
Diseinua barne
Inprenta barne
Garraioa barne
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

HEMEN
ZORIONAK
IRAILAREN 18AN
ETA
AZAROAREN 18AN

25061€
50065€
100070€

ttipi-ttapa 948 635 458

MERKATU TTIKIA

DENETARIK

galdu-aurkituak

BERA. Loro honen bila gabiltza. Irailaren 24an ihes egin zuen Iturlandeta inguruan. Gris argia da eta isatsa gorria eta eratzunez bete. Uso baten tamaina du eta oso hitzuna da. Norbaitek ikusi edo aurkitzen badu, dei dezala. Laguntzen digunari ordainsaria emanen diogu. ☎948 631543/658 381837/686 316397.



IRA-GAR-KIA

aldizkarian interneten

8EURO

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
www.ttipi.net

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzerera, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



ttipi txartela

ttipi-ttapa

PIU IRIARTEA IGARTZA
72675333-G
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZÖZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58
telefonoan

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidela 7, 31770 LESAKA

Tel. 948 635 458 | Fax. 948 635 457

info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUAK

FOTO-IRGIZKIAR

GOIKO

BERA | %10 kopia digitaletan

**JUAN J.
PICABEA**

DONEZTEBE

%10, marka batzuetan ezik

MASTER

ALTZURI

LESACA | %5 etxetresnetan



KIROLAK ZELA

BERA | %5eko deskontua

elika

BERA | %5 kontsultan

txinelka

ZAPATADENDA

LESACA | %10eko deskontua

zozketak

600. ALEKO IRABAZLEAK

- 1- DVDa | Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Kontxi Bertiz Osakar | **ORNOZ-MUGAIRI**
- 2- 2 SARRERA Lesakako Udal Kiroldegia
Jaione Otxandorena | **SUNBILLA**
- 3- 2 SARRERA | Oiartzungo finalaurrekoak
Bertsolari Txapelketa Nagusia
Trini Arretxea Adansa | **DONAMARIA**
- 4- 2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
Begina nolako hariak | Ana M^a Telletxea | **ELIZONDO**
Txinako gau gorriak | Mariano Ezeberri | **ELIZONDO**
- 5- Txokolate Lotea | Arkupe Gozotegia
Fermin Maritorea Azkarate | **ANIZ**
- 6- 2 SARRERA | Donostia Aquariuma
Itziar Azpiroz Garcia | **DONEZTEBE**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto

www.onddotapunto.com



2 LAGUNENTZAKO AFARIA
OITZKO OSTATUA

www.posadaoitz.com



2 SARRERA - OIARTZUN

Bertsolari Txapelketa Nagusia

www.txapelketanagusia.eu



2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea

www.ttartalo.com



MARTIKO LOTEA

www.martiko.com



2 SARRERA
Donostiako Aquariuma

www.aquariumss.com

